



## Erradiologiaren garrantzia medikuntza modernoan

Bartzelonako Clinic Hospitaleko  
Laura Oleaga erradiologo  
oñatiarrak emango dio hasiera  
Oñatiko Esperientzien Gelaren  
ikasturte berriari

# "Erradiologiak medikuntza modernoa eraldatu du eta paper erabakigarria jokatzeko du egungo osasungintzan"

Medikuntzan doktore eta Bartzelonako Clinic Hospitaleko Erradiologia departamentuko buru den Laura Oleaga oñatiarraren hitzaldiak emango dio hasiera Oñatiko Esperientzien Gelaren ikasturte berriari

**Urriaren 11n, ostirala, izango da hitzaldia, Santa Ana aretoan, 19:00etan**



Laura Oleaga Oñatin jaio zen eta Bartzelonako Clinic Ospitaleko Neuro-erradiologia sailean dihardu

Laura Oleaga Zufiriaren (Oñati, 1959) hitzaldiak emango dio hasiera Oñatiko Esperientzien Gelaren 2024/25 ikasturteari, urriaren 11n, ostirala, Santa Ana antzokian, 19:00etan. 'Descubriendo los secretos detrás de las imágenes médicas: una introducción a la Radiología' da hitzaldiaren izenburua. Diagnostiko zehatzagoak eta tratamendu pertsonalizatuak ahalbidetzen dituzten erradiologia-teknologia aurreratuak azalduko ditu. Erradiologiak medikuntza modernoa nola eraldatu duen eta gaur egungo osasungintzan betetzen duen paper erabakigarriaz berba egingo du. Hitzaldi informatibo bat prestatu duela aurreratu digu, publiko orokorarentzat interesgarria izan daitekeena, eta herritar guztiak gonbidatzen ditu Santa Ana antzokian emango duen hitzaldian parte hartzera. Amaieran luntxa egongo da.

### 'Irudi medikoen atzean dauden sekretuak: Erradiologiaren sarrera' da Oñatin emango duzun hitzaldia- ren izenburua. Zertaz hitz egingo duzu?

Jardunaldiak erradiologiaren ikuspegi orokorra eskainiko du, X izpien aurkikuntzaren jatorritik hasi eta gaur egun diagnostiko zehatzagoak eta tratamendu pertsonalizatuak ahalbidetzen dituzten teknologia aurreratuertaraino jorratuz. Erradiologiak medikuntza moderno nola eraldatu duen eta gaur egungo osasungintzan betetzen duen paper erabakigarria aztertuko dugu.

#### Zer da Erradiologia?

Erradiologia gaixotasunen diagnostiko eta tratamenduz arduratzen den medikuntzaren adar bat da, irudi-tekniken bidez, hala nola, erradiografia, erresonantzia magnetikoa, tomografia konputazionala eta ekografia, besteak beste. Ezinbestekoa da patologia goiz identifikatzeko eta, gainera, irudiz gidatutako prozedura interbentzionisten bidezko tratamenduetarako gida da, modu minimoki inbaditzailean.

#### Erradiologiaren historia 1895ean hasten da X izpien aurkikuntzarekin, eta horrek medikuntza irauli zuen, ezta?

Halaxe da. 1895ean Wilhelm Conrad Röntgen-ek X izpien aurkikuntzak medikuntzan aurretik eta ondoren bat markatu zuen, giza gorputzaren

barrualdea ebakuntzarik gabe ikusteko aukera eman zuen lehen aldiz. Aurrerapen horrek erradiologia garatzeko oinarriak ezarri zituen diagnostiko eta tratamendu medikoan ezinbesteko diziplina gisa.

**"X izpien aurkikuntzak medikuntzan aurretik eta ondoren bat markatu zuen, giza gorputzaren barrualdea ebakuntzarik gabe ikusteko aukera eman baitzuen lehen aldiz"**

**"Teknologiak hainbeste aurreratu du, non orain oso bereizmen eta doitasun handiko irudiak lor daitezkeen, eta horrek nabarmen hobetzen du hainbat gaixotasunen diagnostikoa eta tratamendua"**

#### Harrezkero, erradiologiak bilakaera nabarmena izan du. Zertan aurreratu da?

Erradiologiaren eboluzioak bilakaera handia izan du. X izpi soiletatik hiru dimentsioko irudietara pasa gara, konputagailu bidezko tomografia eta erresonantzia magnetikokoarekin edo ultrasoinuekin. Gainera, esku-hartze erradiologiak irudiak gidatutako prozedura terapeutikoak eta ia batere inbaditzaileak ez direnak egiteko aukera ematen du. Teknologiak hainbeste aurreratu du, non orain oso bereizmen eta doitasun handiko irudiak lor daitezkeen, eta horrek nabarmen hobetzen du hainbat gaixotasunen diagnostikoa eta tratamendua.

#### Bizitzaren beste hainbat arlotan bezala, adimen artifiziala erradiologia iraultzen ari da. Zein zentzutan?

Adimen artifiziala (AA) erradiologia eraldatzen ari da hainbat modutan. Gaixotasunen detekzio goiztiarren hobekuntzatik ikaskuntza sakoneko algoritmoen bidez, irudien azterketa azkarrago eta zehatzagoa ahalbidetuz. Gainera, AA tresna berriak garatzen laguntzen ari da tratamenduak pertsonalizatzeko eta zenbait terapiearekiko pazienteen erantzuna aurreikusteko.

AA-k ere posible egiten du erradiologiaren lan-fluxua eta erradiologoaren lan-karga optimizatzea, baita irudien kalitatea hobetzea, ar-

## Ikerketari eta irakaskuntzari eskainitako dedikazioagatik nabarmendua

**Madrilgo Unibertsitate Autonomoan lizentziatuz medikuntzan, eta Donostia Ospitalean osatu zuen erradiologiako prestakuntza. Pennsylvaniako Unibertsitatean trebatuz ikerketa arloan eta Basurtun lan egin zuen Erradiologiako espezialista gisa. 1998an lortu zuen doktore titulua Euskal Herriko Unibertsitatean. 2009an Bartzelonako Clinic Ospitaleko Erradiologia Saileko buru izendatu zuten. Erradiologiako irakaslea izan zen Bartzelonako Unibertsitatean 2022ra arte. Ehundik gora artikuluko zientifiko argitaratu ditu. Espainiako Erradiologia Elkartearen presidenteordea eta Batzorde Zientifikoko lehendakaria izan zen, eta baita Europako Erradiologia Elkartearen Hezkuntza Batzordeko presidentere ere. 2018az geroztik Erradiologiako Europako Diplomaren zuzendari zientifikoa da. 2021ean Espainiako Erradiologia Elkartearen urrezko domina jaso zuen eta 2022an Europako Erradiologia elkartearen urrezko domina. Monclinic fundazioko Corelab-eko zuzendaria da egun.**



tefaktuak eta erradiazio-dosia murriztuz.

**Zehazki, erradiologian ematen ari den iraultza honek medikuntzaren zein esparrutan laguntzen du? Hobe ulertzen laguntzen duten adibide batzuk eman zenitzake?**

Erradiologiaren iraultza eragin handia izaten ari da onkologia bezalako alorretan, non AA tumoreak detektatzen eta karakterizatzen laguntzen baitu, tratamendu zehatzagoak ahalbidetuz. Kardiologian, irudi-teknika aurreratuek bihotzaren eta odol-hodien osasuna modu ez inbaditzailean ebaluatzeko aukera ematen dute. Beste adibide bat neurologia da, non garuneko irudi aurreratuak Alzheimerra eta istripu zerebrobaskularrak bezalako nahasteen diagnostikoa eta tratamendua hobetzen ari diren.

**Ikerketa arloari dagokionez, garuneko tumoreen irudien aplikazio klinikotan zentratu zara batez ere. Zein bilakaera izan da arlo honetan, zehazki?**

Garuneko tumoreen irudiaren arloan, aurrerapen nabarmenak izan dira. Irudi-teknika aurreratuek, hala nola, erresonantzia magnetiko funtzionala (fMRI) eta RM espektroskopia, tumorea ikusteko ez ezik, bere portaera biologikoa eta inguruena ulertzeko aukera ematen dute. Horrek diagnostikoan, plangintza kirurgikoan

## "Beti esaten dut oñatiarra naizela"

Oñatin sortua da Laura, bertan bizi izan zen 10 urte bete arte, eta leku orotan partekatzen omen du bere oñatiartasuna. "Gabonak, Aste Santuak eta uda ere Oñatin igarotzen ditut, Araotzen zehazki. Nire haurtzaroko adiskideak mantentzen ditut; harremanetan mantentzen gara eta aldian-aldian elkartu ohi gara".



**"Erradiologiaren iraultza eragin handia izaten ari da onkologia bezalako alorretan. Adimen artifizialak tumoreak detektatzen eta karakterizatzen laguntzen du, tratamendu zehatzagoak ahalbidetuz"**

eta tratamenduaren erantzunaren ebaluazioan zehaztasuna hobetu du, pazienteen kudeaketa eraginkorragoa lortuz.

**Lan klinikoaz gain, ikerketa zientifikoan eta irakaskuntzan ere parte hartu du bereziki, eta, beste aitortpenen artean, 'Most Effective Radiology Educator' izendatu zaituzte, besteak beste. Zergatik irakaskuntzaren eta espezializazioaren aldeko apustu hori?**

**"Kardiologian, irudi-teknika aurreratuek bihotzaren eta odol-hodien osasuna modu ez-inbaditzailean ebaluatzeko aukera ematen du. Alzheimerra bezalako gaitzen tratamenduak ere hobetzen ari dira"**

Irakaskuntza eta ikerketa ezinbestekoak dira medikuntzaren aurrerapenerako. Irakaskuntzarekin dudak konpromisoa erradiologoek be-lanaldi berriak trebatzea pazienteen arreta hobetzen jarraitzeko ezinbestekoa dela uste dudalako da. Espezializazioari esker, medikuek ezagutza sakonak gara dituzakete arlo zehatzetan, diagnostiko zehatzagoak eta tratamendu eraginkorragoak lortuz. Gainera, ikerketak muga berriak irekitzen ditu erradiologian, pazienteei me-

**"Hitzaldi informatibo bat prestatu dut, publiko orokorarentzat interesgarria izatea espero dut eta biztanleriaren osasunerako hezkuntza tresna gisa balioko duena. Oñatiar guztiak gonbidatzen ditut"**

sede egiten dieten teknologia berritzaileak aurkitu eta aplikatzeko aukera emanez.

**Batek baino gehiagok pentsatuko du, agian, aurkezpena teknikoa eta ulertzeko zaila izango dela. Nor gonbidatuko zenuke Oñatin eskainiko duzun hitzaldira?**

Hitzaldi informatibo bat prestatu dut, publiko orokorarentzat interesgarria izatea espero dut eta biztanleriaren osasunerako hezkuntza tresna gisa balioko duena.

**ARANBURU  
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21  
Kale Barria, 11  
Lizaur A., 7  
OÑATI  
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO  
GUZTIETAKO  
ALTZARIAK**

**LANPARAK,  
TAPIZAK,  
KORTINAK**

**ARKITEKTURA**

Baserriak \* Teilatuak \* Fatxadak \* Igogailuak

Bidebarrieta 13. Oñati \* tel: 677 31 20 57  
amaia@aiarkitektura.com

# OÑATIKO ESPERIENTZIEN GELA

## Oñatiko Udala eta Goienagusiren elkarlanaren eskutik

2022ko urrian jarri zen abian Oñatiko Esperientzien Gela, udaleko Hezkuntza sailak eta Debagoieneko Goienagusi elkarteak sinatutako lan-kidetza hitzarmenari esker.

55 urtetik gorako herritar guztiei zuzendutako ekimena da Esperientzien Gela. Ezagutza esparruak zabaldu, kultura maila aberastu, aisialdiaz gozatu, harreman berriak sortu, eta gizarte gaiekiko jarrera aktiboa sustatzea dira ekimen honen helburuak, eta, horretarako, hainbat ekintza antolatuko dira ikasturtean zehar: hitzaldiak, tailerrak, mendi ibilaldiak, kultur irteerak...

Oñatiko udalarekin sinatutako hitzarmenaren arabera, Goienagusi elkarteak hamabostean behin hitzaldi bat antolatuko du Oñatin, gutxi gora behera, eta hitzaldi hauek irekiak eta dohainik izango dira oñatiar guztientzat. Hitzaldiez gain, tarteka ekintza bereziren bat (ikas-taroak, mendi irteerak, ekitaldi musikatuak...) ere antolatuko da Oñatin.

Oñatiko hitzaldiak asteazken goizetan (10:00) izaten dira, Santa Ana antzokian, eta ordu erdi lehenago kafea hartzeko aukera egoten da, udalari esker, Santa Anan bertan, herritarren arteko hartu-emanak sustatu eta bideratzeko asmoz.

Aldiz, Goienagusik eskualdeko beste herriren batean antolatzen dituen ekitaldi eta bestelako ekintzetan parte hartu ahal izateko, elkarte-ko bazkidea izan behar da, 40 euroko urteko kuota or-



Jesus Mari Ugarte, Goienagusi elkartearen hitzaldia programatzeko taldeko kidea.

**"Hitzaldi oso interesgarriak antolatzen dituelako eta harreman berriak egiteko aukera ematen duelako egin nintzen Goienagusiko bazkide"**

dainduta. Elkartearen webgunean [www.goienagusi.eus](http://www.goienagusi.eus) daude argibideak eta izen-emate dokumentua.

### GOI MAILAKO HIZLARIA

Oñatiko Esperientzien Gelaren 2024-2025 ikasturteari hasiera emateko goi mailako hizlaria etorriko da Oñatira urriaren 11n, Goienagusi elkarte-ko kide den Jesus Mari Ugartek azaldu digun moduan. "Urtero lez, hitzaldi berezi bat antolatzen saia-

tzen gara kurtsoari hasiera emateko, eta aurten ere hala izango da. Bartzelonako Clinica Ospitaleko Radiologia departamentuko buru den Laura Oleaga izango da hizlaria. Oñatin jaioa da bera, medikuntzan doktorea, erradiologian espezializatua, eta hainbat sari jaso dituena ikerketan eta mediku gazteen trebakuntzan egindako lanagatik, bereziki. Adimen artifizialaren eskutik erradiologian ematen ari diren aurrerapenez, eta horrek gaitzen diagnostikoetan eta tratamenduetan duen garrantziaz jardungo du. Oso interesgarria izango da. Normalean, hitzaldiak goizeko 10etan izaten dira, baina aurreneko hau berezia denez, ostiral arratsaldean programatu dugu, jende gehiagok parte hartu ahal izateko".

### GOIENAGUSIKO BAZKIDE

Jesus Mari Ugarte orain dela hiru urte egin zen Goienagusiko bazkide, bi arrazoi-erengatik, berak azaldu digun moduan. "Batetik, antolatzen dituzten hitzaldiak oso interesgarriak eta askotarikoak izaten direlako, eta hizlariak ere goi mailakoak. Eta, bestetik, elkartekideen artean dagoen giroagatik. Hitzaldiez gain antolatzen diren ekitaldietan (mendi ibilaldiak, kultur irteerak...) eta tarteka egiten ditugun bazkarietan oso giro ona egoten da eta harremanak egiteko aukera egoten da bailarako jendearekin". Beraz animatu egiten ditu oñatiarrak Goienagusiko bazkide egitera.

## HURRENGO HITZORDUAK

### OÑATIKO ESPERIENTZIEN GELA

• URRIAK 16, EGUAZTENA  
SANTA ANA, 10:00

**'Aita Mari itsasontzia. Elkartasunaren sinboloa Mediterraneoko ur zurrumbilotsuetan'**

Hizlaria: Izaskun Arriaran

• URRIAK 30, EGUAZTENA  
SANTA ANA, 10:00

**'Evolución e historia de la cartografía en Gipuzkoa. Una visión desde Debagoiena'**

Hizlaria: Jabier Aspuru

### GOIENAGUSI

• URRIAK 7, ASTELEHENA  
Bergara (Seminarioa) 10:00

**'Haurdunaldi subrogatuaren analisi feministak'**

Hizlaria: June Fernandez

• URRIAK 14, ASTELEHENA  
Arrasate (Kulturata), 10:00

**'40 años informando sobre viajes y aventuras'**

Hizlaria: Roge Blasco

• URRIAK 21, ASTELEHENA  
Arrasate (Kulturata), 10:00

**'Bihotzaren erritmoan dantzan'**

Hizlaria: Larraitx Gaztañaga

• URRIAK 23, ASTEAZKENA  
Bergara (Seminarioa) 10:00

**'Barandiaran eta euskal Pizkudea'**

Hizlaria: Jon Mentxakatorre

• URRIAK 28, ASTELEHENA  
Arrasate (Kulturata) 10:00

**'Voluntades anticipadas y autodeterminación'**

Hizlaria: Marije Goikoetxea

# Udalak eta AFAGIk lankidetzan jarraituko dute alzheimerraren aurkako borrokan

**Estimulazio kognitiborako tailerra** eskainiko du AFAGIk Oñatin, eta baita **informazio bulegoa** ere, alzheimerra edo beste dementziaren bat duten pertsoneri eta senideei informazioa eta laguntza eskaintzeko



Udaleko eta AFAGIko ordezkariak

Oñatiko Udalak eta AFAGIk (Alzheimerra edo bestelako dementziaren bat duten Gipuzkoako gaixo eta senideen elkarteak) lankidetzan jarraituko dute, era honetako gaixotasunetik herritarren artean sortzen dituzten kezka eta beharrei erantzuteko asmoz. Hala jakinarazi zuen Lierni Altubek, udaleko Ongizate batzordeko buruak, irailaren 17an egin zen 'Alzheimerrarekin elkarbizi' hitzaldiaren hasieran.

Altubek gogorarazi zuen orain dela urtebete sinatu zutela Udala eta AFAGIren arteko hitzarmena, eta, horri esker, Estimulazio Kognitiborako Tailerrak eta informazio bulegoa izan ditugula Oñatin bertan, AFAGIren eskutik. "Uste dut oñatarrantzako aurrerapauso handia izan dela, bai gaixoen bizi-kalitateerako eta baita familiendako ere, orain arte

beste herri batzuetara joan-etorrian ibili behar izan dutelako era honetako zerbitzuak behar zituztenean".

Ongizate batzordeko zinegotzi buruak eskerrak eman zizkion AFAGI elkarteari eta udaleko Gizarte Zerbitzuetako langileei ere, guztien ahaleginari esker daukagulako zerbitzu hau Oñatin.

AFAGIko presidente den Iñaki Olalde oñatiarrak ere eskerrak eman zizkion Udalari, Oñatin bulego bat zabaltzeko emandako aukeragatik. "Aurrerapausoak ematen ari gara, poliki poliki, baina gaixotasuna azkarrago doa eta, horregatik, urrats eta gauza berriak egitera behartuta gaude, ze neurriak hartzen ez baditugu, 15 edo 20 urte barru imajinatu ere ezin dugun arazo sozio-sanitario baten aurrean egongo gara. Eta ez da beldurra sartzeagatik;

**"AFAGI Oñatin edukitzea aurrerapauso handia da, bai gaixoen bizi-kalitateerako eta baita familiendako ere"**

**LIERNI ALTUBE**  
UDALEKO ONGIZATE ZINEGOTZIA

errealitatea da, estatistikek erakusten dutena". Gaur egun, 14.000 pertsona inguru daude dementziaren batekin, eta kopuru hori esponentzialki igoko da, gizarte zahartuz doan heinean.

**GAITZA SOZIALIZATZEAREN GARRANTZIA**

Ainhua Garciak (AFAGIko langilea) eta Felix Peñak (bolutarioa) gaixotasuna so-

**"Alzheimerra bezalako gaitzak luzeak eta gogorak izaten dira bakarrik eramateko. Beraz, etor daitezela herritarrek laguntza eske, beldur barik"**

**IÑAKI OLALDE**  
AFAGI ELKARTEKO BURUA

ziazalatzearen garrantziaz jardun zuten. "Gizartea sentsibilizatu eta gaitz honek daukan estigma kendu behar diogu. Ez da ezkutatu behar. Ez dago zertan lotsatu. Komunikatu egin behar da ze, bestela, ezin da lagundu, eta hau gaixotasun gogorra, luzea eta oso nekagarria da bakardadean eramateko", esan zuen Felixek -alzheimerra izan zuen bere emaz-

## Estimulazio kognitiborako tailerrak eta informazio bulegoa

Iaz bezala, Bidebarrieta kaleko 18 zenbakian eskainiko ditu AFAGI elkarteak Estimulazio Kognitiborako tailerrak, astearte eta ostegunetan (11:00-12:30). Alzheimerra edo beste dementziaren bat hasierako fasean duten pertsonen zuzenduta daude. Funtzio kognitiboak eta gaitasun funtzionalak lantzen dira bertan, gaitzaren eboluzioa moteldu eta gaixoen autonomia ahalik eta luzaroen mantentzeko. Pertsona bakoitzaren hurbileko jarraipena egiten da, balorazioak eginez gaitzaren garapena neurtzeko.

Horrez gain, informazio zerbitzua ere eskaintzen du AFAGIk bulego honetan bertan, aurrez hitzordua eskatuta: **943 297 118** / **afagi@afagi.eus**. AFAGIk laguntza psiko-sozial pertsonalizatua eta aholkularitza eskaintzen dio Alzheimerre duen pertsonaren familiari.



Bidebarrieta kaleko 18an eskaintzen ditu bere zerbitzuak AFAGI elkarteak, astearte eta ostegun goizetan

tea zaindu zuen hamar bat urtez. "Zorionez, AFAGI bezalako elkarteak daude, beti egongo dena laguntzeko prest eta sekula ez zaituena bakarrik utziko. Nik hasieran oso gaizki pasa nuen, baina AFAGI ezagutu nuenetik gauzak asko aldatu ziren".

**ESTIMULAZIO KOGNITIBOA**  
Estimulazio kognitiboaren garrantzia ere azpimarratu zuten hizlariak, baldin eta gaitza hasierako fasean baldin dago. "Estimulazio kognitiborako tailerretan funtzio kognitiboak (oroimena, lengoia, arreta, orientazioa...) estimulatzen dira, eta gaitasun funtzionalak lantzen dira, gaixoen autonomia mantendu eta ahalik eta gehien luzatzeko".

Horregatik, oso garrantzitsua da Alzheimerre bezalako gaitzen sintoma eta alerta seinaleei adi egotea (memoria aldaketak, desorientazioa, hitz egiteko arazoak...). Halakoak antzemanen gero, hobe da ahalik eta azkarren familia-medikuarengana joatea diagnostikoa ahalik eta goiztiarrena izan dadin.

Zaintzailea zaintzearen garrantzia ere azpimarratu nahi

izan zuen Felixek, oso gaitz nekagarria bihurtzen delako, bai fisikoki eta baita moraliki ere. "Horregatik, oso garrantzitsua da familiako kide guztiek parte hartzea zaintzan. Zaintzailea ondo baldin badago, hobeto zaindu ahal izango du". Ildo horretan, behin eta berriz azpimarratu zuen Alzheimerre daukan pertsona maitasunez, errespetuz eta duintasunez zaindu behar dela, komunikazio emozionalean bertsuak, laztanak, irribarreak...- arreta jarri.

### INFORMAZIO BULEGOA

AFAGI 1991n sortu zen eta 33 urte daramatza Alzheimerre edo beste dementziaren bat duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzen, eta baita beraien senide eta zaintzaileena ere. Dibulgazio eta sentsibilizazio lana egiteaz gain, laguntza psikologikoa, eta aholkularitza eskaintzen du arlo legal, ekonomiko eta asistentzialean, eta bizi-kalitatea hobetzeko terapia eta bestelako jarduerak ere bai.

Udalak eta AFAGIk hiru urterako lankidetzak hitzartu dute eta Udalak 38.886€-ko ekarpena egingo dio trukean.

## 'ELKARREKIN INDARTSUAGOAK GARA'



'Elkarrekin indartsuagoak gara'. Horixe izan da irailaren 21ean ospatzen den Alzheimerrearen Munduko Egunean AFAGIk azpimarratu nahi izan duen mezua, Iñaki Olalde presidentek azaldu digunez. "Dei egin nahi diegu erakunde publikoei, enpresa pribatuei eta gizarte osoari, oro har, elkarrekin lan egin behar dugula, denok norabide berean, bakoitza bere aletxo jarri, arazo honi aurre egiteko. Jabetu gaitzela, urte gutxi barru bolumen izugarria hartuko duen gizarte arazo baten aurrean gaudela, eta bakoitzak bere erantzukizuna onartu dezala".

Estatistiken arabera, 2050ean 37.000 gipuzkoarrek izango dute Alzheimerre edo beste dementziaren bat. Gainera, gero eta jende gazteagoaren artean ematen ari da. "Datu serioak dira. Horregatik, dei egiten diegu herritar guztiei, oro har, solidarioagoak izateko gaixotasun hauen aurrean. Estigmak baztertu eta sozializatu egin behar dugu arazoa, gaixotasun hauek dituzten pertsonak integratuz, eta inor bazterrean utzi gabe".

Ildo horretan Olalde dei egiten die erakunde publikoei eta enpresa pribatuei, AFAGI bezalako irabazi-asmorik gabeko elkarteak laguntzeko, Alzheimerre duten pertsonen eta hauen senide eta zaintzaileen bizi-kalitatea hobetzen jarraitu ahal izan dezaten.

Azkenik, Olalde animatu egin nahi ditu oñatiarrak AFAGIk Oñatin eskaintzen dituen zerbitzuetara hurbildu daitezen, inolako beldur edo lotsa barik. "Normala izaten da hasieran galduta egotea, eta gu laguntzeko gaude, bai gaixoei eta baita senideei ere. Beraz, etorri bulegora, kezka eta zalantzak argitzera. Hauek prozesu luzeak eta gogorak dira, eta oso zailak bakardadean eramateko".



ONEKA ANDUAGA / 'AUZOKO' PROGRAMAREN DINAMIZATZAILEA

## "Euskara dakien jendea behar-beharrezkoa da Auzoko-n, euskarara hurbildu nahi duen jendeari bide hori egiten laguntzeko"

- > **Urriaren 16an** egingo da AUZOKOren ikasturte berriaren aurkezpen saioa Eltziaiko 3. solairuan.
- > Anduagak animatu egin nahi ditu herritarrak, euskara dakitenak eta ikasi nahi dutenak, parte hartzera.

Euskararik ez dakien jendea, Oñatira iritsi berriak, edota aspalditik hemen bizi arren, euskararik ez dakien jendea euskarara hurbiltzea da Udalak eta Txatxilipurdik urtero antolatzen duten AUZOKO programaren helburua. "Harrera-programa baten modukoa da", azaldu digu Oneka Anduagak, ekimenaren dinamizatzaileak; "Oñati bezalako herri anitz batean jatorri, kultura eta hizkuntza ezberdinetako jendea bizi da, zorionez, eta AUZOKOK bilatzen duena da, denon arteko kohesio edo komunikazio hizkuntza euskara iza-



lazko kurtsoko ekintza berezietako batean argazkian agerituen erraldoia egin zuten Auzoko-ko partaideek Xabier Mendizabalen laguntzarekin.

tea, bakoitzaren kultura eta hizkuntza balioan jarriz".

### OINARRIZKO EUSKARA

Beraz, euskara erdigunean jartzen duen programa da Auzoko, baina ez modu akademikoan, argitu digu Anduagak. "Hemen ez dugu gramatika ikasten, ez dugu etxeko lanik bidaltzen. Oinarrizko hiztegia eta egunerokotasunean erabilgarriak diren esaldiak ikasten ditugu errepikapenaren eta jolas edo ekintza ezberdinen bidez, ahalik eta modu ludiko eta atseginenean". Beraz, euskararekiko lehen hurbilpena egitea da helburua eta, bide batez, herrian integrazten laguntzea.

### ASTEAN SAIO BAT

Astean ordu eta erdiko saio bat egiten dute, Eltzian. Iaz bezala, aurten ere asteaz-

## "Oinarrizko euskara lantzen dugu Auzokon, beraz, ez da beharrezkoa EGA titulua edukitzea euskarara hurbildu nahi duten etorkinei laguntzeko"

**ONEKA ANDUAGA GARAI**  
AUZOKO-KO DINAMIZATZAILEA

kenetan izango dira, eta bi talde osatzeko asmoa dago (15:00-16:30 edo 19:20:30), ordutegi aldetik erraztasun gehiago ematearren.

"Saio ahalik eta dinamikoak prestatzen saiatzen gara, esan bezala, jolasen eta errepikapenen bidez egunerokoan erabiltzeko moduko esaldi motzak (nork bere burua aurkezteko, gauzak eskatzeko...) eta oinarrizko hiztegia (zenbakiak, koloreak, gorputz-atalak...) lantzen ditugu", azaldu digu Anduagak. "Horrez gain, hilean behin, gutxi gora behera, ekintza bereziak egiten ditugu; azaroan, adibidez, clown saioa egingo dugu Oñatiko Algaraz elkartearen eskutik. Oso lagungarria izaten da talde-giroa indartzeko. Oñatz dantza taldea, Natur Eskola eta beste talde batzuekin ere egiten ditugu dinamika bereziak; euskarara hurbiltzeaz gain, herrian integratzen laguntzea ere bada Auzoko-ren helburua eta, beraz, interesgarria da herriko eragile ezberdinekin elkarlanean aritzea, harre-

man sareak zabaldu eta herrian dauden dinamika ezberdinen berri izan dezaten".

### **EUSKAL HIZTUNEN BEHARRA**

Auzoko-k bere helburua egoki bete ahal izateko, euskarara hurbildu nahi duten pertsonen (AUZOKIDEAK) gain, euskara dakiten pertsonak ere (AUZOTARRAK) behar beharrezkoak dira, ikaste eta integrazio prozesu horretan laguntzeko. Horregatik, Anduagak dei egiten die euskal hiztunei ere Auzoko-n parte hartzera. "Oinarrizko euskara lantzen dugu eta, beraz, ez da beharrezkoa EGA titulua edukitzea, ezta gutxiago ere; jatorri, kultura eta hizkuntza ezberdinetako jendea ezagutzeko eta euskal kulturara hurbildu nahi duten pertsonen astean ordu eta erdi eskaintzeko prest egotea besterik ez da eskatzen. Adinak ere ez du axola, izan daitezke gazteak, ikasleak edo jubillatuak"..

### **AURKEZPEN SAIOA**

Urriaren 16an egingo da, Eltziaiko 3. solairuan (19:00) Auzoko-ren kurtso berriaren aurkezpena, eta bertan azalduko dituzte xehetasun guztiak. Herritar guztiak izango dira ongi-etorriak, bai euskarara hurbildu nahi dutenak, eta baita hauei laguntzeko bere aletxoak ipintzeko prest dauden herritar euskaldunak ere. Harremanetan jartzeko: [onatikoauzoko@gmail.com](mailto:onatikoauzoko@gmail.com) / 688 651 205 / [@auzokoonati](https://www.instagram.com/auzokoonati) (Instagram).



## 'Hil arte bizi' dokumentala aurrera ateratzen laguntzeko diru bilketa kanpaina jarri du abian Iñurri elkarteak

[www.goteo.org/project/hil-arte-bizi](http://www.goteo.org/project/hil-arte-bizi)

webgunean egin daitezke diru ekarpenak. Iñurri elkarteak Oñatiko kideek dei egiten diete herritarrei ekimenarekin bat egitera

Ikuspegi feminista eta eraldatzaile batetik minbiziari buruzko dibulgazioa, formazioa eta akonpainamendua eskaintzen duen Iñurri elkarteak diru-bilketa edo *crowdfunding* kanpaina bat jarri du abian 'HIL ARTE BIZI' dokumentala aurrera ateratzen laguntzeko.

Minbiziaren gaixotasuna ikuspuntu feminista, kolektibo eta eraldatzailetik bizi duten euskal emakumeen historia kontatzen duen film-dokumentala da 'Hil arte bizi'. Gaixotasunaren ikuspegi propioa erakusten dute, non zaintza komunak, salaketa eta eraldaketa soziala gailentzen diren. Sei kapitulutan banatuta dago filma, eta bi urtez emakume horiek izandako bizipenak kontatzen ditu.

Xuban Intxausti zinegilea ari da dokumentala zuzentzen. Bere arrebak minbizia izan zuen, eta Iñurri elkarteak egiten duen lana ezagutzeak bultzatu zuen proiektu honetan murgiltzera, emakume hauen historiak kontatuz.

Minbizia duen pertsona bat nola tratatu behar den ikastea, heriotzari aurre egiteko modu berriak ezagutzea, gaixotasuna tratatzeko orduan erakundeek eta gizarteak dituzten gabeziak barneratzea, mastektomizatutako emakumeen errealitatea eta gorputz ez-normatiboak zabaltzeko borroka entzutea dira, besteak beste, dokumentalean jorratzen diren gaiak.

Iñurri elkarteak 2019an jaio zen emakume talde bat ohar-tu zenean ez zegoela minbizia normaltasunez, tabuetatik libre eta zuzenean nahiz zeharka bizi duten pertsonak ahalduentzeko eran lantzeko gunerik. (<https://izaninurri.eus>)



**Ingelesko Akademia**  
Listening Speaking Reading Writing

**Maite Aiestui Kortabarría**  
Irakaslea  
Arantzazuko Ama, 3 behea  
943 53 36 57  
20560 OÑATI (Gipuzkoa)  
[4sgoiena@gmail.com](mailto:4sgoiena@gmail.com)  
[www.4sgoiena.com](http://www.4sgoiena.com)

# 'IBAILAGUN JARDUNALDIAK'

## erreken garrantziaren

## inguruan sentsibilizatzeko

Urtero bezala, urriarekin batera IBAILAGUN jardunaldiak antolatu ditu Oñatiko Natur Eskolak, udaleko Ingurumen sailarekin elkarlanean. Aurtengoa 12. aldia izango da.

Jardunaldi hauen helburua gure erreka-ibaien eta beren baitan gordetzen duten bioaniztasunaren garrantzia ezagutzera ematea da, eta hauen babesarekiko sentsibilizazioa herritarren artean piztea eta indartzea.

Helburu horrekin, hainbat ekitaldi (ikus-entzunezkoak, hitzaldiak, dokumental emanaldi eta solasaldia...) antolatu dituzte ondoko egitarauan azaltzen den moduan. Aurten, ekintza berezi bezala, Urumea ibaian barrena arraunean ibiltzeko irteera antolatu dute, eta urtero bezala, herriko erreketan batutako hondakinak batzeko saioa ere egingo da urriaren 19an. Herritar guztiak daude gonbidatuta. Oinetako egokiak eta eskularruak eramatea gomendatzen da.



Chiapasen urarekin duten arazoa azaltzen du **JA'** dokumentalak. Mexikoko ur gezaren %45 dago bertan, baina, hala ere, milloi bat familia baino gehiagok ez dute ur korronterik.



### URUMEAN ARRAUNEAN!

Ibailagun jardunaldiak borobiltzeko irteera bat antolatu da urriaren 20rako. Urumea ibaian arraunean aritzeko aukera egongo da. 16 urtetik beherakoek heldu batekin joan beharko dute. Izen-ematea beharrezkoa da (633509781) whatsapppe, urriaren 16ra arte.

## EGITARAUA

### Urriak 15, asteartea

- IKUS-ENTZUNEZKOA: 'Ta argiya in zan'. Kultur etxean, 19:00etan. Urumeako zentral hidroelektrikoei buruzko lan artistikoa, Eli Pagola Apezetxeak eta Ainhoa Gutierrez del Pozoren lana.

### Urriak 16, asteazkena

- HITZALDIA: 'Lurpeko ura, babestu beharreko altxorra'. Kultur etxean, 19:00etan. Hizlaria: Inma Mugerza Perelló, Geologian doktorea.

### Urriak 18, ostirala

- DOKUMENTALA ETA SOLASALDIA: 'Ja! Uraren krisia Chiapasen'. Kultur etxean, 19:00etan. Ane Nafarrete, Ihana Iriondo eta Aitziber Jimenez de Aberasturiren lana.

### Urriak 19, larunbata

- ERREKA GARBIKETA: Herriko plazan, 10:00.

### Urriak 20, igandea

- IRTEERA: 'Urumea arraunean!'. Irteera posta geltokian, 9:00etan. Donostiatik buelta 13:30etan. Kostua: 10€ helduak / 7€ ikasle eta langabetuak / 5€ 16 urteteik beherakoak. Izen-ematea: whatsapp bidez (633509781), urriaren 16ra arte.



ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA  
943 039 006 688 774 531 - WHATSAPP  
OINATI@COINBROKER.EUS



# Oñatiko industrian lan egindako emakumeen ekarpena aztergai IV. Selma Huxley bekan

'Oñatiko fabriketan emakumeen (ezinbesteko) lana' du izenburua Edurne Iriondok egingo duen ikerlanak. Bekak 18.000 euroko dotazioa du.



Oñatiko industrian lan egin duten emakumeen ekarpena azalratzea eta aitortza egitea. Oñatin industrializazioa hasi zenetik emakumeen fabriketan izan duten tokia eta eragina ezagutzea eta ikusaraztea da, Udalak eman duen IV. Selma Huxley Barkham bekaren helburua.

Gogoratu, Oñatiko emakumeek historian zehar herriari egindako ekarpenak plazartzeko helburuarekin sortu zuela udalak Selma Huxley beka, Euskal Herriko itsas-historia ikertzen hainbat urtez Oñatin bizi izan zen ikerlariaren omenez.

Orain arteko hiru deialdietan '**Emakumeak errekadutan. XX. mendeko ko-meertzio txikiaren etnografia feminista**' (2017), '**Bizitzak erdigunean. Oñatiko zaintzaileen genealogia feminista 1950-2020**' (2019), eta '**Oñatiko emakume mojak: izaera, bizimodua eta ekarpena ikuspegi feministatik**' (2021) lanak burutu dira.

Laugarren edizioako deialdia udaberrian egin zuen Udalak, eta jasotako bi proposa-

menen artean Edurne Iriondo Plazak aurkeztutakoa '**Oñatiko fabriketan emakumeen (ezinbesteko) lana**'- hobetsi du.

Edurne Iriondo, Oñatin bizi den ondarrutarra, ingeniartzan lizentziaduna da, eta 18 hilabeteko epea izango du ikerlana burutu eta herritarren artean zabalpena egiteko. Bekak 18.000 euroko dotazioa du.

Helburua, esan bezala, Oñatin industria modernoa (1866) hasi zenetik hona egon diren lantegietan -La Minerva poxpolu fabrika, Garay, Zahor, Tximist, Ezpeleta, Betik...- jardun izan duten emakumeen jatorria, hezkuntza maila, lanpostuak, lan-baldintzak, ardurak eta bestelako informatzea jasotzea da, Oñatiko industriaren historia osatuago bat eduki ahal izateko.

Udaleko Berdintasun sailak eskerrak eman nahi dizkie epaimahaian parte hartu duten herriko mugimendu feministako Idurre OImedo eta M<sup>a</sup> Asun Zelaiari, eta AFIT ikerketa taldeko Leire Castrillo eta Maider Galardiri. Talde horrek berorrek egingo du ikerlanaren jarraipena ere.

## Laguntza eske, fabriketan lan egindako emakumeei

Ikerlana ahalik eta osatuena izan dadin, Iriondok laguntza dei zabala luzatu die fabriketan lan egindako Oñatiko emakumei, beraien begirada eta lekukotzak jasotzeko elkarrizketa bidez, eta baita ere, etxean eduki ahal dituzten laneko-arropak, lanabesak, katalogoak edo fabrikako lanari lotutako bestelako elementuak erregistratu ahal izateko. Elementu horiek argazki edo eskaner bidez erregistratu eta berehala bueltatuko zaizkie jabeei. Elkarrizketa eta testigantzei dagokienez, parte hartzen duten emakumeek erabakiko dute anonimotasuna mantendu ala ez..

Industria-enpresek ikerlanean lagundu nahi badute, bertan emakumeek izan duten ibilbidea eta ekarpena azalduz, edo lan eremuko elementuak utziz, ongi etorriak izango dira, jakina, informazio oso baliotsua izango baita.

Batera edo bestera, testigantzak eskainiz edo elementuren bat utziz ikerlanerako ekarpenen bat egin nahi dutenak **edurne.iriondo@ehu.eus** e-mailera idatzi edo **946014316** zenbakira dei dezakete.

**Testigantza bidez edo lan eremuko elementuren bat (arropa, lanabes...) utziz lagundu nahi izanez gero: edurne.iriondo@ehu.eus / 946 014 316**

# Teilatuko koponketa lanak ordaintzeko laguntza eskatu die Parrokiak herritarrei

> 285.000 euroko aurrekontua dute amaitzear dauden lanek

Amaitzear daude Parrokiako teilatuko konponketa lanak. Itokinek eta hezetasunak eragindako arazoak begibistakoak ziren jada parrokiak, eta neurriak hartu ezean, arazoa larriagotu egingo zen. Beraz, Korpus jaia igaro orduko hasi ziren teilatua berritzeko lanak. Zehazki, lau gunetan egin da esku-hartzea: klaustroko teilatuan, sakristiaren gainekoan eta, azkenik, Mikel Aozaraza eta Doloretako Amaren kapera txikien teilatua hegaletan.

Lanek 285.000 euroko aurrekontua dute. Erakunde, fundazio eta zenbait enpresen emandako laguntzari esker 60.000 euro inguru bildu ditu parrokiak. Oñatiko udalak, adibidez, 35.000 eman ditu, Onnera Group-ek 15.000€, Juan Zelaia fundazioak 5.000€ eta Ulma Fundazioak beste hainbeste. Ulmak, gainera, dohainik utzi ditu aldarnioak.

Baina oraindik diru asko falta da eta Parrokiak bere kabuz ordaindu ezin duenez, herritarrengana jotzea erabaki du laguntza eske. Irailan etxe guztietara banatu zen esku-orrian azaltzen da non eta nola egin daitezkeen diru ekarpenak entitate fi-



Jose Antonio Ugarte eta Kontxi Ugarte, Parrokiako ekonomia batordeko kideak, Horazio Argarate parrokoarekin

nantzarioen bidez. Bestela, Parrokiako ate banatan ipini diren itsulapiko edo kutxetan ere badago zuzenean dirua emateko aukera.

Herritarrengan konfiantza osoa duela adierai du Horazio Argarate parrokoak, lehenago egin izan diren konponketa lan batzuetan ere eskuzabal agertu izan direlako. "Aniztasun konfesionaleko garai hauetan Parrokiak topaleku izaten jarraitzen du, bai zerbitzu erlijiosoaren ospakizunetan, bai beste jardueren zibil batzuetan ere (kontzertuak, Turismo Bulegoaren bisita gidatuak...", adie-

razi dute Parrokiatik. Horregatik, dei egiten zaie herritarrei ahal duten neurrian lagun dezaten oñatiarrontzat hain berezia den eraikin eder hau mantentzen laguntzeko.

**"Konfiantza osoa dut herritarrengan, lehenago egin izan diren beste lan batzuetan ere eskuzabal agertu izan direlako"**

**HORAZIO ARGARATE**  
PARROKOA

## Marrazki lehiaketako lanak ikusgai TXANDAKo erakusleihoetan

'Txikizkako Merkataritza' gaiaren inguruan TXANDAK 4-12 urteko haurrei zuzendutako marrazki erakusketako lanak ikusgai daude elkartearen dendetan, urriaren 13ra arte. Partaide guztien artean hamar sari zozkatu dituzte, opari sorta eta 50€-ko erosketa txarteletan.

Etxeko txikiengana hurbiltzea da kanpaina honen helburua, herriko saltokiak ezagutu ditzaten, merkatariek, zer saltzen duten... Eta, aldi berean, txikizkako merkataritzaren inguruan hausnarketa egin dezaten marrazki baten bidez.

## Eskola-materiala banatu du Gurutze Gorriak

2018az geroztik, ikasturte hasierarekin batera eskolako materiala banatzen du Debagoieneko Gurutze Gorriak kalteberatasun egoera duden familietako haurren artean. Aurten, zehazki, eskualdeko hainbat familiatarako 198 hurrek jaso dute laguntza, eta ekimen solidario hau hasi zenetik 1.500 hurrek. Ekimen hau herri bakoitzeko Gizarte Zerbitzuekin batera garatzen da.

**CORTABARRIA**  
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

**Etxe eta lokalen gestio orokorrak**

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: linkorta@tefeline.es

**EGUR-LAN**  
AROSTEGIA  
LIMABAR S.A.L.

BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)  
TEL / FAXA: 943 78 14 59 limabarral@gmail.com

www.egur-lan.es

'En pocas palabras, menos de 100' (Amat Ed.) liburua argitaratu du Juanma Quellek (Oñati, 1966). Garapen pertsonaleko liburu bat da, pentsatzeko modu berriak eragiteko tresnak eskaintzen dituena; liburu inspiratzailea, non hitz bakoitzak eta esaldi bakoitzak irakurlea bizi-esperientzia osoago eta esanguratsuago batera eramateko ahalmena duen. "Edonon zaudela ere, bide berriak erakutsiko dizkizun iparrorratza", egileak azaldu duenez.

Liburu berri honetan orain dela lau urte argitaratu zuen 'En menos de 100 palabras' arrakastatsuen estilo eta esentzia bera mantentzen ditu Juanmak, eta beste behin ere erakutsi digu mezu boteretsuak formatu labur eta zuzenean transmititzeko duen gaitasun aparta. "Beti pentsatu izan dut sinpletasuna dela sofistikazioaren adierazle nagusia, eta liburu honetako esaldi bakoitzean ideia horri leial izaten saiatu naiz, errazago ulertzeko, ideia bakoitza hobeto barneratu ahal izateko, eta irakurle mota guztientzat ulergarria eta probetxugarria izateko", dio Juanmak.

Liburua ez dago nahitaez hasieratik bukaerara irakurri beharrik. "Liburu honen magia da, edozein orritan zabalitzen duzula ere, beti aurkituko duzula inspiratuko zaituen zerbait. Hori bai, atal bakoitza irakurri ostean une batez gelditu eta edukia inguruko gogoeta egi-



## 'En pocas palabras, menos de 100' liburua plazaratu du Juanma Quellek

Duela lau urte argitaratu zuen 'En menos de 100 palabras' arrakastatsuen (Ez-fikzioko liburu salduenen top-3an egon zen estatu mailan 2022an) esentzia mantentzen du. Formatu labur eta zuzenean mezu boteretsuak helarazteko duen gaitasuna erakusten du beste behin Juanmak. Egunerokoari aurre egiteko inspirazio eta motibazio bila dabilzanentzako liburua da.

**"Formatu labur eta zuzenean mezu boteretsuak transmititzeko duen gaitasun aparta erakutsi du beste behin Juanmak"**

tea proposatzen diot irakurleari, eta, ondoren, bere bizitzako esperientzia batekin lotzea. Azken batean, helburua da betiko arazo eta errutinei aurre egiteko estrategia eta pentsamolde berriak barneratzea".

Azken batean, hausnarketara eta hazkunde pertsonalera bultzatzen duen liburua da, testu labur eta zirrargarrien bidez. Egunerokorako inspirazio eta motibazio bila dabilzanentzako irakurketa aproposa.

### DAGOENKO SALGAI

Liburu-denda eta plataforma digitaletan eros daiteke liburua. Baita *juanmaquelle.com* webgunean eskatuta, (dedikatoriarekin). Urrian Mexikon aurkeztuko da liburua, eta 2025eko urte hasieran Txilen, Kolonbian eta Argentinan, besteak beste.

Idazten ez ezik, hizlari gisa ere ibilbide arrakastatsua egiten ari da Juanma, psikologia positiboan oinarrituta, beti ere. 'Positivarte' bere azken konferentziak 120.000tik gora lagun bildu ditu azken hiru urteotan, eta sare sozialetan 370 milatik gora jarraitzaile ditu.

**Oñabike**

oñabike.com

Otadui 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL EKIPAZIOAK

## Kiroldegi aurreko parkean estalkia eta iturria egokituko ditu Udalak

2023/2024 Partaidetzazko Aurrekontuen prozesuan herritarrek proposatu eta hautatutako egitasmoetako bat da



## Aita Lizarralde eta Arantzazuko Ama kaleetan bidegorria eraikitzeko proiektua enkargatu du Udalak

Errepidetik bereizitako bidegorria egokituko da

Oñatiko Hiri-Mugikortasun Planak jasotzen dituen azpiegitra eta esku-hartzeak garatzeko asmoz, Aita Lizarralde eta Arantzazuko Ama kaleetan bidegorria eraikitzeko proiektua idaztea enkargatu dio Sestra Ingeniaritza eta Arkitektura enpresari 14.000 eurotan.

Helburua da errepidetik bereizitako bizikleta bidea egokitzea, Lazarraga kalean dagoen bezala.

Sestra enpresak otsailean aurkeztu zuen aurreproiektuaren arabera, Aita Lizarralde kalean autobus geltokia dagoen aldeko espaloian, ezkerrekoan Bidaurretatik begira, egokituko da bidegorria, espaloia zabalduz eta errepidearen zabalera pittin bat estutuz.



Aita Lizarralde eta Arantzazuko Ama arteko biribilgunean ere espaloi beretik jarraituko du bidegorriak, espaloia mugatzen duen ormatxo atzeratuz eta espaloia zabalduz. Arantzazuko Ama kalean aldiz, eskumako espaloian (gorako norabidean) egokituko da bidegorria.

Baina, esan bezala, orain egikaritze proiektua idatzi behar du Sestra enpresak, eta horretarako 12 asteko epea izango du. Aurreproiektua ia 600 mila euroko aurrekontua du. Udalak 15.000 euroko laguntza jasoko du Foru Aldunditik proiektua idazteko.

Kiroldegia eta ikastola artean dagoen jolas-parkearen estalkia eta iturria egokitzeke proiektuaren idazketa Biark Studio arkitekturen bulegoari esleitu dio Udalak 5.800 eurotan (+BEZ). Berea izan da Udalak jasotako eskaintzen artean ekonomikoena. Orain, enpresak bi hilabeteko epea izango du proiektua idazteko.

Gogoratu, hau izan zela Partaidetzazko Aurrekontuak 2023-2024 prozesuan herritarrek aukeratutako eta hobetsitako bederatzi egitasmoetatik bat; zehazki, zazpigarren bozkatuena izan zen, botoen %32,80rekin. Proiektuak 30.300€-ko aurrekontua dauka.

Esku-hartze honek helburu bikoitza du: batetik, jolas-eremuek diren umeentzako iturria egokitzea, eta, bestetik, umeen zaintzan dihardutenentzako itzaldun egonlekua eta aterpea eskaintzea.

### KONPONKETAK BESTE HIRU JOLAS-PARKETAN

Bestalde, herriko jolas-parkeetan udalak urtero egiten dituen oinarriko konpontze lanez gain, aurten esku-hartze bereziak egingo dira Olakua (Txiki Txoko ondoan), Otadui-Urbieta eta Ugarkaldeko jolas lekuetan.

Olakua eta Otadui-koetan kautxuzko lurzorua guztiz berrituko da, hezetasunak bereziki kaltetu ditu eta plaken arteko loturak zartatuta egoteaz gain, gainazala labainkor eta arriskutsu dagoelako zenbait lekutan. Ugarkaldeko eremuan berriz, bi dorreen artean dagoen babes sarea berrituko da, egun dagoenaren antzekoa.

Lanak Urabil enpresak egingo ditu 12.061 eurotan. Bi hilabeteko epea izango du horretarako.



## Jabetze Eskolaren ikasturte berria abian

Abian da udaleko Berdintasun sailak antolatzen duen Emakumeentzako Jabetze Eskola. Pasa den astean etxe guztietara banatu den liburuxketan ikus daitekeen moduan, zazpi ikastaro eta zenbait tailer eta hitzaldi antolatu dira datozen hilabeteetarako. Gogoratu, Jabetze Eskola hausnarketarako eta formaziorako topagunea dela; emakumeen eskubideez jabetzeko, kezkak eta ondoezak partekatzeko, autonomia eta konfiantza lantzeko, eta emakumeen arteko sareak sortzen laguntzeko elkargunea. Azken batean, indarkeriarik gabeko bizitzak askatasunez bizitzea da helburua, eta horretan eragin nahi du Jabetze Eskolak, emakumeen ahalduntze prozesuan eraginez maila guztietan. Gogoratu, urriaren 4a dela Jabetze Eskolan eskaintzen diren ikastaro eta tailerretan izena emateko azken eguna, [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) webgunean, edo HAZ bulegoan. Zalantzak argitzeko edo ekarpenak egiteko: [berdintasuna@onati.eus](mailto:berdintasuna@onati.eus) / 688621213.

## Artzain txabolean egindako lanak diruz laguntzeko bigarren deialdia egin du Udalak

Oñatiko Herri Onurako Mendietan dauden artzain txaboletan egindako lanak diruz laguntzeko 2024ko bigarren deialdia egin du Udalak. Martxoan egin zen lehen deialdira aurkeztutako eskaera bakarrak 3.238€-ko laguntza jaso zuen, baina oraindik 9.761 euro eman gabe geratu direnez, bigarren deialdia egitea erabaki da. Hogeita hamar eguneko epea irekiko da deialdia GAO-n argitaratzen denetik aurrera.

## Kiroldegiko energia sorreran eta kontsumoan eragingo duten bi kontratu sinatu ditu Udalak

Udal instalazioen energia kontsumoa murrizteko egitasmoaren baitan, bi esku-hartze egiteko kontratuak sinatu berri ditu Udalak. Alde batetik, kiroldegiko teilatuan autokontsumorako eguzki planta fotoboltaikoa egokituko da, 125kw-ko potentziaduna, eta lan hori Artico Ingurumena S.L. enpresari esleitu dio Udalak 82.000 eurotan.

Bestalde, kiroldegiko kantxa urdineko eta pilotalekuko argiteria aldatu eta LED lanparak jarriko dira, kontsumoa eta kostua murrizteko, eta horretarako kontratua Cuadra elektrizitatea enpresarekin sinatu da 109.349 eurotan.

## Urbiako ermitak 100 urte bete ditu



Irailaren 28an, Urbiako ermita sagaratu eta inauguratu zela ehun urte betetzen ziren egun berean, ospatu zen 'artzainen katedrala' bezala ere ezagutu izan den Urbiako baseliza txiki eta ederraren mendeurrena. Eliza beteta zela, Arantzazura iritsi berria den Jose Antonio Urdanpilleta frantziskotarrak eman zuen meza, ermita hau eraiki eta ehun urtez bizirik mantendu duten aurreko guztien ohoretan. Ikur gisa, aldarean ipini zuten, Arantzazutik ekarria, duela ehun urte Ignacio Zuloaga margolariak dohaintzan emandako Doloretako Amaren irudia. Et Incarnatus orkestrak edertu zuen elizkizuna, Aita Madinaren 'Aita Gurea' eta Arantzazuko Ama Birjinaren ereserkia maisuki interpretatuz. Meza ondoren ere, kontzertua eskaini zuten baselizan bertan, Alaitz eta Maiderrekin batera.

Gogoratu, Urbiako ermita 1924an eraiki zutela, Adrian Lizarralde (1884-1935) frantziskotarraren ekimenez, garai hartan Urbian bizi ziren 30 bat artzain familiek beren fedea egokiago bizi ahal izateko. Marcelo Guibert arkitektoak idatzi zuen proiektua eta lau hilabeteren buruan eraiki zuten baseliza auzolanean, 35.844 pezetako kostuarekin. Aldundiak ordaindu zuen erdia, eta inguruetako udalek eta herritarrek ere egin zuten ekarpena; hala, Oñatiko udalak 1.000 pezeta eman zituen, eta oñatiarren artean 2.340 pzta. batu ziren. Inaugurazio egunean 6.000 bat lagun bildu ziren Urbian, eta Mateo Mujika Iruñeko gotzainak bedeinkatu zuen ermita. Egun berean jarri zuten Fondaren lehen harria ere.



Eszerrean, 'https://arazkokontuak' web guneko atal bat. Eskuman Irizar eta Urkia, egileak (OÑATI IRRATIA)

## 'Araozko natura eta kontuak' webgunea sortu dute Irizarrek eta Urkiak

Lehendik ere ezagutzen genuen Iñazio Irizarrek eta Joxe Angel Urkiak sare sozialetan, blogetan eta, batez ere, Interneteko Euskal Wikipedian idazteko duten zaletasuna, baina, oraingoan, eremu berri bat ere probatu nahi izan dute eta webgune bat sortu dute, 'Araozko natura eta kontuak' izenekoa. Izenburuak berak aditzera ematen duenez, Araozt auzoko natura (hegaztiak, landareak, zuhaitzak, arrainak, perretxikoak, zomorroak...) eta bertako kontu zaharrak (esaerak, kondairak, sinesmenak, gertaerak, ipuinak, historia...) jaso dituzte bertan.

lazio irailean hasi ziren lanean eta, dagoeneko, 500dik gora sarrera edo artikulua, 2.000tik gora argazki eta zenbait bideo ere jaso dituzte.

Asko eta asko Urkiak bere aurrekoei entzun eta ikasitako kontuak dira, galtzar zeudenak eta, aurrerantzean, hortxe sarean egongo direnak edo nork kontsultatzeko moduan. Aurretik beste idazle eta aditu batzuek (Martin Mendizabal, Paulo Agirrebalzategi, Luis Villasante...) Araozti buruz idatzitako hainbat kontu jakingarri ere bildu dituzte. Lan bikaina, inondik ere, poliki poliki elikatuz osatuko dutena.

### WIKIPEDIA TAILERRA PAKE LEKUN

Joxe Angel Urkia duela hiru urte hasi zen Euskal Wikipedian idazten, Iñazio Irizarrek Pake Lekun antolatutako ikastaro baten ostean, eta orain zabaldu egin nahi lukete taldea, Oñatin jubilatutako asko dagoelako zer kontatu asko eta interesgarria izan dezakeena.

Pake Lekuko 'Wikipedia' taldekoak ostiraletan elkartzen dira (10:30-11:30) eta, beraz, norbaitek interesa balu, ager dadila bertara. Irizarrek eta Urkiak lagunduko diote eta gero norberak erabakitzen du zertaz idatzi eta zenbat denbora eskaini.

## Zuzendari berriarekin hasi da kurtsoa Lege-Soziologia Institutuan



Australia, Turkia, Irak, Bangladesh, Egipto, Estatu Batuak, Letonia, Austria, Herbehereak, Erresuma Batua, Frantzia, Portugal eta Espainiatik etorritako 15 ikaslek egingo dute aurtengo Lege Soziologiako Nazioarteko Masterra (EHUko master ofiziala) Oñatin. Aurtengo kurtsoan bada beste berritasunik ere, izan ere Jose Maria Saucá Cano bilbotarra izendatu baitute erakundeko zuzendari zientifiko, hurrengo bi urteetarako, Sabine Frerichs alemaniarraren lekukoa hartuz. Saucá Zuzenbidean katedraduna da eta ondo ezagutzen du Oñatiko LSNEa.

## Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09  
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

## ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
  - Lentzeria
  - Umeen jantziak
- Kale Barria, 54 OÑATI

## JAIXETAKO PROTAGONISTAK



**MUS TXAPELKETA** Errota-Peio bikoteak irabazi zuen (800€, txapela eta garaikurra) 15. San Migel Mus txapelketa. Lehen oñatiarren saria ere (200€) eraman zuten. Bigarren (400€ eta urdaiazpikoa) Bobi-Emilio sailkatu ziren. Guztira 45 bikotek parte hartu zuten.



**BERAKATZ ZOPA LEHIAKETA** Sonia De la fuente eta Josu Txintxurretak prestatutako berakatz-zopak irabazi du aurtengo lehiaketako lehen saria (200€). Bigarren saria (100€) Belen Ormazabal eta Miguel Angel Arregirentzat izan da. Guztira, hamar bikotek parte hartu dute.



**ATSOLORRA** Azken urteotako ohiturari eutsiz, urtean zehar jaiotako ongietorria egin zitzairen udaletxeko batzar areto nagusian, musika eskolako kideek girotutako ekitaldian. Alkateak konpromisoa hartu zuen haur horiek pozik eta modu seguruan hazi eta hezteko baldintzak ipintzeko. Ondoren, haurtxoek zapi bana jaso zuten zinegotzien eskutik.



**ARTZAIN TXAKURRAK** Viladrau-ko (Girona) Moises Tarrasek eta 'Mel' txakurra irabazi dute aurten Oñatiko txapela preziatua, Jose M<sup>a</sup> Pleguezuelos eta Antonio Alustizak osatu dute podiuma.



**BOLA-JOKUA** Iñaki Olalde nagusitu da aurten 5 txirlo botata (bi tiralditan). Iñigo Irazabal eta Jexus Zabaletak osatu zuten podiuma. Subastako tiraldia Ander Biainek irabazi zuen 5 txirlorakin.



**PLATER TIRAKETA** Aitor Arabolaza nagusitu zen Pago Usok antolatutako herriko plater tiraketan 25 plateretik 21 jota. Jose Javier Sanz (19) eta Jexus Inzak (19) osatu zuten podiuma.



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariako erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

**Bidaurreta Dorrea z/g**  
**20560 OÑATI**  
**Tel.: 943 78 20 72**  
**kontzejupetik@onati.eus**



Azaleko argazkia:  
Laura Oleaga.

## KONTZEJUPETIK

### Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

### Zuzendaria:

Iñigo Arregi

### Maketazioa:

Abao Komunikazio Agentzia

### Kolaboratzailea:

Euskaltegia

### Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

### Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa  
20560 Oñati (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 20 72

## HOTZ-OÑATI TALDEAK ESKER ONEZ

### Edurne Bikuña (Hotz-Oñati)

HOTZ-OÑATIren izenean Oñatiko herritarrei gure eskerrik beroenak ematea dagokigu berriro ere, Atzeko Kaleko jaietan erakutsitako elkartasun uholdeagatik: 80 tortilla inguru egin, eta prestatutako ogitarteko eta pintxo guztiak erosi zenituzten... Aupa ZUEK!

Lortutako diruarekin, premiazko gauzez osaturiko motxilak bete ditugu: arropa lehorrak (prakak, sudadera, kamiseta, galtzetinak eta barruko arropak), txankletak, toalla, hortzetako eskula eta pasta.

Zuen elkartasunik gabe, guk ezingo genuke hau guztia aurrera eramane... MILA MILA ESKER berriro ere LAGUNTZEN LAGUNTZEAGATIK.

### JANARI BILKETA

Halaber, urriaren 17, 18 eta 19an aurtengo **Janaria Bilketa** egingo dugula aurreratu nahi dugu. Ohi bezala, herriko supermerkatuetan egingo da, eta dei egiten diegu herritarrei, beste behin, ahal duten neurrian laguntzeko elkartasun kanpaina honetan.



## OHAR ETA DEIALDIAK

### HERRIBUS ZERBITZUA JAIETAN

- URRIAK 5 (Herri Eguna): Oñati eta Arantzazu arteko autobus zerbitzua egongo da orduro. Oñatitik 12:30etan irtengo da lehen zerbitzua eta 18:30etan azkena. Geldiuneak eskatu ahal izango dira jatetxeetan. Arantzazutik behera 19:00etan irtengo da azken autobusa.
- URRIAK 6 (Errosarixo eguna): Oñati eta Arantzazu arteko autobus zerbitzua egun guztian zehar egongo da, ohi bezala.
- URRIAK 7 (Errosarixo Bixamona): Ez da autobus zerbitzurik egongo, ez herri mailakoa, ezta Arantzazukoa ere.

### HONDAKIN BILKETA JAIETAN

- URRIAK 5 eta 7: Bi egun hauetan kamioia ezingo da Foruen enparantzan, Atzeko Kalen, Kale Barrian eta Kale Zaharreen sartu. Ondorioz, kale horietako komertzioei ezingo zaie atean jaso, eta, beraz, inguruko beste bilketa puntu hauetakoren batera eramatea eskatzen zaie: Maiatzaren 1a plaza (ONCE kabinaren ondoan), Iturritxoko ONCEren ondoan, Ramon Irizar edo Portu kaleko esekitokitara, edo Lizaur kaleko 1go esekitokitara.

### ARTILE BILKETA ZERBITZUA

- Landaola, Lurgintza eta Abelur elkarteek antolatuta, urria eta azaroa artean egingo da 2024ko artile bilketa kanpaina, Foru Aldundiaren laguntzarekin. Kostua ardi kopuruaren arabera izango da. Hala, 50 ardi baino gutxiago duenak 39,44€ ordaindu beharko du, eta 700dik gora dituenak 434,67 euro. Interesdunek **696 433 602** telefonora deitu behar dute, entregatzeko eguna, ordua eta tokia, eta bestelako datu batzuk adieraziz. Denera, zazpi bilketa egun eta herri finkatu dira, eta **Oñatiko azaroaren 6an** izango da, Urrutxuko ekarpen gunean.



OÑATIKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.



Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | [www.mekalki.es](http://www.mekalki.es)

*Gure ekintzen berri emango duen atala...*

## >> TXALOKA UDAL LUDOTEKAREN IKASTURTE BERRIA MARTXAN! <<

Beste urte batez, Oñatiko Txaloka udal ludotekak atea zabaldu ditu herriko gaztetxoentzako. Horrela, irailaren 16tik aurrera, ludoteka ezagutzeko eta bertan izena emateko aukera egongo da. Izena emateko berriz ludotekan galdetu besterik ez daukazue, eta bertako hezitzaileek bideratuko dute guztia.

Gogoan eta balioan jarri behar da beste behin, ludotekak herriari eskaintzen dion zerbitzuaren aberastasuna. Oñatiko Txaloka ludoteka, euskaraz jolasteko eta lagunartean ondo pasatzeko gune bat da, 3-4 urtetik 8-9 urtera bitarteko haurrentzat bideratuta. Astelehenetik ostiralera jolas librearen bitartez, haurren autonomia eta parte hartzea bultzatzen da bertan; arratsaldeko 16.45etan hasi eta 19.45 arte.

Aurten ere, jardueraz betetako urtea izango da. Ate irekietatik hasi, ekintza bereziak antolatzen jarraiki, ludoteka ibiltariak diseinatuz gero eta ostiralero-ostiralero ludotekaren atea herrira zabalduko ditugu antolatutako tailerrak eskainiz: zirko tailerra, estanpazio tailerra, ipuin kontalaria, eskulanak, ortuko lanetan aritzeko ekintzak, bitxigintza... etabar luze batez eramango dugu aurrera ikasturtea ludotekako helburu nagusia ahaztu gabe: Lagun berriekin jolasaz gozatzea!!!

Aste osoan zehar ludotekako atea hura ezagutu nahi duen ororentzat zabalik dauden arren, ostiraletan gonbidapen berezi bat egiten zaio herriari.

Ez galdu aukera eta bete dezagun ludoteka haurrez. Parte hartu eta hurbildu gu ezagutzera.

Urriaren 14an, arratsaldeko 18.00tan bilera ireki bat antolatu dugu adin horretako gurasoentzat, ludotekako hezitzaileak ezagutu, informazio gehiago jaso, edo zuon galderak erantzuteko.

Edozein berri, ekintza, gonbidapen, ... Txaloka ludotekako sare sozialetan argitaratuko dugu, gon adi! (@txalokaludoteka).



### VERDURY HALL - GAZTELEKUA:

**Urriak 19, larunbata (19:00):** OLATZ SALVADOR (Aurrez 10€ / Takilan 12€). **Urriak 27, igandea (12:30):** MILA MODU (Aurrez / Takilan 8€). **Azaroak 9, larunbata (22:00):** ANESTEDIA + ANKER (Aurrez 12€ / Takilan 15€). **Abenduak 1, igandea (12:30):** IDOIA ASURMENDI (Aurrez 10€ / Takilan 12€). **Abenduak 29, igandea (17:00 eta 19:00 / Santa Ana antzokian):** GOIAZEN (Aurrez / Takilan 10€) . **Urtarrilak 11, larunbata (22:00):** DELIRIUM TREMENS + KEIA (Aurrez 12€ / Takilan 15€).

Sarrerak: [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) eta Txokolatexan, irailaren 28tik aurrera

**MENDI IRTEERA - Urriak 20****Valdezcaray-San Lorenzo  
(2.271m)-Valvanera**

Errioxara bueltatuko dira Aloña Mendiko mendi sailekoak, orain dela urte batzuk egindako irteera errepikatuz. Valdezcaray eski estazioetik abiatuko dira, aurrena pistetatik eta, gero, behin lepoa hartuta, San Lorentzoko erretzetik, tontorreraino. Handik jaitsiera motela hegoaldeko basoetatik Valvanerako monastegiraino. Guztira, 15,5 km (6-7 ordu) eta 850m.-ko desnibela. Ez du batere zailtasunik. Irteera, goizeko 7etan postetxe parean. Izen-emateko epea: urriak 10-17 alonamendi.mendi@gmail.com helbidean, autobusa bete arte (40 leku).

**Zubillagako I.  
Mendi Martxa**

Bere egunean eguraldi txarrragatik bertan behera geratu zen Zubillagako I. Mendi Martxa **urriaren 19an** egingo da. goizeko 9:00etan hasita auzoko pilotalekutik. Guztira 14 km.-ko (640m+) ibilbidea izango da.

Izen-ematea (5€) Amets eta Arrano tabernetan. Azken eguna, urriak 13. Izena emanda dutenak kontuan hartuko dira. Guztiek jasoko dute opari eder bana eta amaieran luntxa egongo da.

**Historiarako  
ekitaldia**

Sarri esaten da irudi batek mila hitzek baino gehiago adierazten duela, eta ondoko argazkia da horietako bat. Irailaren 20ean egin zen Aloña Mendi elkartearen 75. urteurreneko ekitaldi nagusia, eta kluba osatzen duten 14 sailtako milatik gora lagunek kolore gorritxo bete zuten herriko plaza. Herri gutxitan egongo da hainbeste kirol bere baitan biltzen dituen kirol elkarterik, herrian hain errotuta dagoena eta herriarentzat hain inportantea dena, ez bakarrik kirol arloan egiten duen lanagatik, baita heziketa, osasuna, herrigintza, lankidetzeta eta beste esparru batzuetan ere. Zorionak antolatzaileei, eta ez dabila soka eten



Bideoa ikusteko

ARGAZKIA: ASIER EGAÑA



**ETXiAN**  
Inmobiliaria

Ramon Irizar kalea, 3  
Tel: 943 71 61 60

etxian@etxian.net  
www.etxian.net

## HARALD LINDER

**ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK**  
PERSIANAK, LERROAK, LUB FLOTARTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...





**DISEÑATZAILE ETA MONTATZAILEA**  
SUKALDIKAK, KOPONAK eta ASKOZ GENGARAK

ILAKIA 12 8 4 esk. - 20500 UNATI - GIPUZKOA

**695 78 91 04 - 943 04 47 77**

## Guridi-Aizpurua eta Ugarte-Azkarate txapeldun



June Guridi eta Oihane Aizpurua nagusitu ziren 22-15 Ainhoa Zumalde eta Nerea Uriarteren aurka, herriko pilota txapelketako finalean. Mutiletan Mikel Ugarte eta Julen Azkaraterentzat izan ziren txapelak (22-21). Jaialdia borobiltzeko, profesional ohien arteko partiduan, Mendizabal eta Erle oñatiarra nagusitu ziren (22-18) Xala eta Pascualen aurka.

## "Pilotalekua beteta ikusteak indartu egiten nau"

Iaz irabazitako txapelari eusten saiatuko da **Iñigo Erle** urriaren 6an, Zubikoa pilotalekuan (17:00)

Igandean, urriak 6, San Migel Pilota Txapelketako finalak jokatu dira Zubikoa pilotalekuan, 17:00etan hasita; aurrena Jubenil mailakoa, eta ondoren nagusia. Eta azken honetan etxeko ordezkari bat izango dugu, Iñigo Erle, Oihan Etxeberria oiartzuarrarekin bikotea osatuz. Oñatiarra iaz Zubizarreta ataundarrarekin irabazitako txapela defendatzera aterako da, baina badaki aurkari gogorrak dituela: Xabi Rekalde dimatarra, eta Unax Landa oiartzuarra. "Beraien finalerdia ikusi nuen eta, egia esan, bikote sendoa osatzen dute. Rekalde aurrelari indartsua da eta atzelariak egun ona badauka, ez da batere erraza izango. Asperekin eta Baikorekin aurre-kontratuak dituzte biek ala biek, eta zerbaitetik izango da".

Erle eta Etxeberria ez ziren nahi bezain ondo hasi, baina txapelketak aurrera egin ahala hobera egin dutela azaldu digu. "Uda partean pilota goxoagoekin jokatu ohi dugu, eta hemengo pilotak exijenteagoak dira, biziagoak, gainera etortzen direnak, eta hasieran kosta egiten da ondo jartzea. Baina finalerdietan hobeto ibili ginen, eta gure maila ematen badugu, domekan ere izango dugu irabazteko aukerarik. Espero dut partida onak ateratzea eta ikusleek gozatzea".



Etxeberria oiartzuarrarekin ari da Erle aurtengo txapelketan. ALOÑA MENDI

Zubikoako harmailak beteta egongo dira, seguruenez, baina horrek ez dio aparteko presiorik eragingo. "Urtetik urtera ari naiz ikasten egoera horiei aurre egiten, eta gaur egun, esango nuke indartu egiten nauela pilotalekua beteta ikusteak". Bezperan, gainera, 23 urte beteko ditu Erlek, eta polita litzateke txapelarekin ospatzea.

Lazkaoko Lapke pilota elkartean ari da Erle azken lau urteotan. Bere burua probatzeko asmoz jo zuen hara eta oso gustura dabil. "Pilotari eta pertsona modura eboluzionatzen lagundu dit, eta asko ari naiz pilotaz disfrutatzen".



## Etxegaraik eta Gamindek Laboral Kutxan nagusi

Udako Laboral Kutxa txapelketa irabazi dute Madalen Etxegaraik eta Laukizko Enara Gamindek. Donostiako Atano III-an jokaturako finalean 22-12 hartu zituzten mendean Olatz Arrizabalaga eta Arrate Bergara. Oso maila onean ari da aurtengo Oñatiko aurrelari bizia. Gogoratu, martxoan jokatu zen Master Cup txapelketa nagusia ere tanto bakar bategatik galdu zutela Arrizabalaga-Erasunen aurka. Gainera, Gipuzkoako eta Eliteko lau t'erdiko txapelketetan ere finalerdietara iritsi zen Madalen, eta GRAVNI txapelketa ere irabazi du Gipuzkoako selekzioarekin.

Azkenaldian entrenamendu saio gogorragoak egiten ari da, bai arlo fisikoan eta baita frontoian ere, eta lan horren ondorio dira lortutako emaitzak, baina badu oraindik arantzatxo bat: "lau t'erdiko txapelketa batean emaitza on bat lortzea. Horrek konfiantza emango lidake".

Hurrengo asteetan Uxue Osesekin batera ariko da Gipuzkoako binakako txapelketan eta laster hasiko den hiru hiriburuetakotan.

# 'Orreaga 824'

Duela 1.200 urte Orreagan izan zen azken gudua gogorarazten duen antzezlanak izango dugu ikusgai Oñatin. Garaipen haren ondoren hasi zen eratzen Iruñeko erresuma, euskaldunen independentziaren jatorria.

**Urriaren 26an izango da emanaldia Santa Anan (19:00)**



Nafarroako Jauregian dagoen margolana, errege nafarraren tronuratzea irudikatzen duena.

Gure herriaren memoria kolektiboa berreskuratu, eza-gutarazi eta transmititzeko lanean diharduen **Nabarralde** Fundazioaren eskutik 'Orreagatik iragan hurbilera' antzezlanak ikusteko aukera izango dugu urriaren 26an, Santa Ana antzokian (19:00).

*Historia Oroitzuz* antzerki elkarteak taularatuko duen antzezlanak Nafarroako gertakari historiko bat oroitarazten du, hain zuzen ere Pirinioak zeharkatzen dituen ibilbidean, Orreaga/Errozabalen, duela 1200 urte izandako bigarren gudua.

Urte batzuk lehenago, 778an, Karlomagno enperadore franko boteretsuaren armada txikitu zuten baskoiek, eta oso denbora-tarte garrantzitsua zabaldu zen

Baskonian. Frankoen eta Kordobako musulmanen artean harrapaturik, Pirinio hegoaldeko baskoiek beren burua antolatzeari ekin zioten, Iruñea haien hiri eta bilgune nagusia izan zelarik.

Mende Erdiko lan ezkutuari esker, Eneko tar leinuko emakumeen inguruan antolatutako aliantza batek -Iruñeko Eneko tarren, Lizarrerriko 'nafarren', Ebro ibarreko Banu Qasitarren eta Aragoiko Belaskotarren artekoa- Aznar eta Eblo konteek zuzentzen zuten armada franko bat garaitu zuten berriro Orreagan 824an.

Garaipen horrek, Eneko Aritzaren errege hautaketa eta, beraz, Iruñeko Erresumaren sorrera ahalbidetu zuten, gerora Nafarroakoa

**Urteurren nabarmena dugu aurten: Iruñeko Erresumaren sorrera, gero Nafarroako Erresuma izena hartuko zuena. Euskaldunon Estatua, gure egitura politiko nagusiaren jaiotza**

izango zena, eta 8 mendeko ibilbidea izango zuen estatu izaerari hasiera emanez.

Beraz, 824koa Nafarroa-Euskal Herriaren historia eta existentzia politikoaren sorrerako mugarri den data historikoa da, eta haren inguruabarrak ezagutzeko aukera emango digu antzezlanak.

## 'Iruñea 824' abestia, Iñaki Idigorasen hitzekin

**Lur Barneak** folk-rock taldeak 'Iruñea 824' abestia plazaratu du bideoklip batekin batera, Orreagako bigarren batailaren 1200. urteurrena oroitzeko, Iñaki Idigoras oñatiarraren letratan oinarrituta. Honela dio: *'Lau mende, erromatar inperioa erori zenetik. Lau mende, inperio berrien aurka, etengabeko defentsan; Godoak, lehenik. Omeiarrak gero, hegotik. Frankoak azkenik, iparretik. Eutsi ta eutsiz, borrokan adoretzu. Errozabalen genuen Karlomagno mendean hartu. Hala ere, frankoen erasoan gaude. Ezin egonez eta amorrazioz, 824an Iruñea zen matxinatu. Ludobiko Pio errege frankoak Eblo eta Aznar hara bidali zituen. Badatoz Eblo eta Aznar Iruñeara. Arpilatze ostean bueltan doaz, baina berriz Errozabalen baskoiak zain gara. Eneko Aritza buru dela, geurea da garaipena! Burujabetasuna berreskuraturik, Iruñeko Erresuma sortzen da. Zortzi mendez euskaldunon babesleku, indar arrotzek berriro, zatika eta konkistaz, menpean hartu gaituzten arte. Iruñeko erresuna izan zen hazia. Beriztu dezagun behingoz gure haritz zaharra!'*

# BEHAR DUZUN ZUNTZAK OPARIA DAKAR

ZUNTZA 300Mb  
+ MUGIKORRA 35GB

**34,90** €/HIL  
BEZa berriz  
3000-ko berriz berriz

Eta dohainik eraman aire  
bidezko TRISTAR frijigailua  
edozein mugikor + zuntza tarifa  
kontratatzuz



PROMOZIO HONEK SOILIK HEMEN BALIO DU:

**LIZKER**  
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA  
TLF: 943 090 600



BEZa berriz berriz Haur kontratatzen baduzu balio du eskaintza honek: 300 Mb-eko zuntza + 35 Gbko mugikor-linea del mugagabeekin hilean 34,90 €-on, 229,90 €-ko deskontua instalazioan, 3 hilabeteko iraupen-konpromisoarekin, 5G abiadura, estaldurari eta 5G terminalari lotuta. Ikusi gainerako baldintzak hemen: [www.masmovil.es](http://www.masmovil.es). 2024ko urriko kontratazioetarako eskaintza.

**MASMOVIL**  
AHORRA, SIN MÁS

# Komiki-tertulixa saio irekia eta 'Ztandap' ikuskizuna, Liburutegien Eguna ospatzeko

Uxue Alberdik eta Susanna Martinek **Surflaria** komikia aurkeztuko dute, eta Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai umoregileek generoa hizpide duen **Ztandap** ikuskizun umoretsua taularatuko dute



Ezkerrean, Alberdi eta Martin, 'Surflaria' komiki albumaren egileak. Eskuman Martiarena eta Torregarai umoregileak.

Urtero legez, ekintza sorta zabala antolatu dute udal liburutegien urriaren 24an ospatzen den Liburutegien Nazioarteko Eguna-ren harira. Urriarekin batera, Oñatiko udal liburutegian dauden lau Tertulixan (irakurle taldeak) eta idazketa lantegia jarriko dira martxan, eta baita haurrei zuzendutako hileroko ipuin kontaketa saioak ere.

Baina, horiez gain, Liburutegien Eguna ospatzeko beste bi saio berezi ere izango ditugu hil honetan.

## 'SURFLARIA' KOMIKIA

Komikia Tertulixan ikasturte honetako lehen saioa irekia izango da, urriaren 15ean (18:30) eta bertan izango dira *Surflaria* komikiaren egileak: Uxue Alberdi gidolaria eta Susanna Martin ilustratzailea.

Udal liburutegiko Komikia Tertulixan irakurle taldeko dinamizatzaile Igor Leturiak gidatuko du saioa eta sorkuntza prozesuaz, bi egileen arteko lankidetzaz, pertsonaiez, komikian erabilitako idatzizko eta ikusizko teknika narratiboez, jorratzen diren gaiez eta istorioan zehar azaltzen diren erreferentzia

musikal eta literarioez jardungo dute, besteak beste. Saioa irekia da interesa duten guztientzat. Animatu!

## 'ZTANDAP' IKUSKIZUNA

Urriaren 23an Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai umoregileen lan berriaz (Ztandap) gozatzeko aukera izango dugu kultur etxe-ko zine aretoan (19:00). Sarrera dohainik.

Aurreko ikuskizunetan bezala, Martiarena eta Torregarai betaurreko moreak jantzita igoko dira oholtzara. Orgasmo arrakala, maitasun erromantikoa, señorak, elkarbizitza... izango dituzte berbegai, besteak beste. "Kritika eginez, deseraikiz, barre eginez eta egin araziz ezandarazi, lehertu nahi ditugu bazterrak", adierazi dute egileek. Generoa umoregai hartuta, ikuspuntu feministatik lantzen du umorea *Ztandap* ikuskizunak.

Aurretik, 'Bakean dagoena bakean utzi' (2017) eta 'Luze edo motz' (2020) lanak taularatu izan dituzte bakarriketari beteranoek, arrakasta handiz beti ere, eta ezaugarri komun batekin: bakarriketa ikuskizuna bina-ka ematea.

## Haurren Irakurketa Kluba ere abian

Berritasun batekin hasi da ikasturtea udal liburutegian, lehendik zeuden Tertulixan irakurle taldeez gain, beste bat sortu baita, LH4 eta LH5-eko haurrei zuzendutakoa hain zuzen ere. Urriaren 21ean izango dute aurreko saioa (17:00). Peru Magdalenak gidatuta, mota guztietako liburuak (ipuinak, komikiak, poesia, aho-korapiloak...) irakurriko dituzte. Hausnarketarako gaitasuna garatzeaz gain, hizkuntza landu, eza-gutza handitu eta irakurle kritikoak sortzeko asmoz.

Gainerakoan, Idazketa Lantegiaren lehen saioa urriaren 14an (18:00) izango da, Joxe Mari Iturraldeak gidatuta. Itziar Ugartek gidatzen duen Euskarazko Tertulixan taldeak hilaren 22an egingo du lehen saioa, *Xomorroak* (Juliá Guillamon) liburuaren inguruan. Eta gaztelaniazko Tertulixan saioak *Peste y cólera* (Patrick Deville) nobela aztertuz, Mónica Leivaren gidaritzapean.

## HAURRENTZAKO SAIOAK



Urriaren 24an 4-5 urteko haurrei zuzendutako 'Kontu-kantari' ipuin kontaketa saioa egongo da Haur liburutegian (18:00), eta hilaren 23-24an herriko ikastetxeetako 4 urteko haurrek liburutegia eza-gutzeko aukera izango dute Lur Kortak ('Aurorita beti polita') gidatuta.



**"Urriaren 24an emango dute lehen kontzertua Arrasateko gaztetxean. Oñatiko lehenengoa urtarrilaren 11n izango da, Gaztelekuan, Delirium Tremens taldearekin"**

Ane Arruti zarauztarrarekin batera, Egoitz Olalde, Iñigo Ibarondo eta Iker Martinez de Zuazo oñatiarrek osatzen dute KEIA taldea

## 'ZAMALANAK'

# Keia taldeak bigarren diskoa plazaratuko du urriaren 4an

Irailean aurrerapen kantua ('Tiraka nabil') eta bideoklipa aurkeztu ostean, urriaren 4an 'Zamalanak' izeneko disko berria, bigarrena, plazaratuko du KEIA taldeak.

Ane Arruti zarauztarraren abesti eta ideia musikaletatik sortutako taldea da KEIA, baina gainerako hiru taldekideak oñatiarrek ditugu: Iker Martinez de Zuazo (*Latzen, Potemkin, Lenao, Amonal, Zaldi Herrenak...*), Egoitz Olalde (*Sharon Stoner, Sorkun, Lenao...*) eta Iñigo Ibaron-

do (*Sharon Stoner, Zingira...*). Beraz, ia ia etxekotzat ere har dezakegu taldea.

2021ean sortu zen KEIA eta hurrengo urtean kalera-tu zuen bere lehen lan luzea 'Erregaia' (2022).

### DISKO BERRIA

Lan berri honetarako Usurbilgo Haritz Harreguy ekoizlearengana jo du taldeak, soinu trinko eta garaikideago baten bila, aurkezpenean azaldu dutenez. 'Erregaia'-ko iluntasunari rock doinu bi-



Arrano eta Eltzia tabernetan dago salgai 'Zamalanak' diskoa, eta baita Elkar-en dendetan. Sareko ohiko plataforma guztietan dago entzungai

ziagoak gailendu zaizkio orain, bestelako elementu (sintetizadore, pad...) batzuekin esploratzearen ondorio".

Zortzi abesti biltzen ditu disko berriak eta Aneren bi-daia bat da, "bizkarrean pilatuz joan den zama, min, zailtasun eta desoreken kontzientzia hartze eta izendatze bat". Diskoa autoekoizpena da, eta salgai dago jada Arrano eta Eltzia tabernetan, eta baita Elkar-en web-gunea eta denda fisikoetan. Sareetan berriz, ohiko plataformetan dago entzungai.

Urriaren 24an emango dute lehen kontzertua Arrasateko gaztetxean (Kooltur). Oñatin urtarrilaren 11n joko dute, Gaztelekuan, *Delirium Tremens* taldearekin.

GARBIKETA  
ADMINISTRAZIOA  
ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47  
Oñati

JUANJE MARGOAK  
627 818 247



# Kultura saileko ikastaroetan izena emateko epea irekiko da


> **Pintura, Eskulan Dekoratiiboak eta Zeramika** tailerrak jarriko dira martxan, nagusi eta gaztetxoentzat.

> **Urriaren 10etik 21era irekiko da izen-ematea**



Herriko jaiak atzean utzita, 2024/2025 ikasturterako udaleko Kultura sailak antolatu dituen aisialdiako ikastaroetan izena emateko epea irekiko da, **urriaren 10etik 21era**, [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) webgunean zintzilikatuko den izen-emate orria betez, edo modu presentzialean, kultur etxean, astelehenetik ostiralera (10:00-13:00 / 16:30-20:30). Urriaren 25ean onartuen zerrenda argitaratuko da udalaren webgunean eta kultur etxeko harreran. Eskainitako plazak baino jende gehiagok izena ematen badu, zozketa bidez egingo da aukeraketa. **Azaroaren 4an** hasiko dira tailerrak. Beheko taulan ikus daitezke osatuko diren taldeak eta orduak.

**Sara Agiriano**  
izango da  
nagusien  
**Pintura taldeko**  
irakaslea



**Sara Agiriano Umerez eskoriatzarra izango da nagusien Pintura taldeko irakaslea, azken urteotan zeregin horretan jardun duen Gurutze Mujika ordezkatzuz. Arte garaikidearen ikerketan espezializatutako artista bisuala da Agiriano. EHU eta Bartzelonako Oberta unibertsitatean jardun izan du lanean, besteak beste**

## PINTURA

### NAGUSIAK (+18 urte)

Irakaslea: Sara Agiriano.

- Astelehen eta astearteak: 16:00-18:00 edo 18:00-20:00

### HAUR ETA GAZTETXOAK

Irakaslea: Mayra Jiménez.

- Asteazkenak  
6-13 urte (LH 1-DBH 2): 18:30-20:00
- Ostegunak  
6-8 urte (LH 1, 2 eta 3): 17:00-18:30
- 9-13 urte (LH 4, 5 eta 6; DBH 1 eta 2): 18:30-20:00
- Ostiralak  
14-18 urte (DBH 3 eta 4 / Batxi 1 eta 2): 15:30-17:00
- 6-8 urte (LH 1, 2 eta 3): 17:00-18:30
- 9-13 urte (LH 4, 5 eta 6; DBH 1 eta 2): 18:30-20:00

## ZERAMIKA

Irakaslea: Jue Larzabal.

### NAGUSIAK (+18 urte)

- Astelehenak: 11:00-13:00 edo 15:00-17:00
- Astearteak: 11:00-13:00

### GAZTETXOAK (9-13 urte)

Irakaslea: June Larzabal.

- Astearteak: 17:30-18:30 edo 18:30-19:30

## ESKULAN DEKORATIBOAK

Irakaslea: Jasone Agirre

### NAGUSIAK (+18 urte)

- Astearteak: 15:00-17:00 edo 18:00-20:00

### GAZTETXOAK (8-12 urte)

- Asteazkenak: 17:00-18:15 edo 18:30-19:45



**XX. MARGO LEHIAKETA** Rikardo Azkargorta (800€), Jose Miguel Arranz (500€) eta Fernando de Vicentek (400€) irabazi dituzte Oñatiko XX. ageriko margo lehiaketako hiru sariak. Oñatiar onenarena (300€) Xanti Ugartek eraman zuen. Gaztetxoaren artean (-16 urte) Nagore Gereñuk (100€+oparia), Garazi Biain (60€+oparia) eta Xan Urteaga (30€+oparia) izan ziren sarituak. Argazkian daude guztiak epaimahaikideekin (Gurutze Mujika, Mirari Sagarzazu eta Leire Fernandez) eta udal ordezkariekin batera. Urriaren 13ra arte egongo dira lan guztiak ikusgai kultur etxean, margo-ikastaroetako ikasleekin batera.

## Esteban Kerexetaren eskulturak ikusgai Santxotena museoan

Esteban Kerexeta oñatiarraren 'Bizi guzti bat / Toda una vida' izeneko erakusketa ikusgai dago Artziniegako Santxotena museoan. Oñatiarraren eskulturak azaroaren 10era arte egongo dira ikusgai, larunbatetan (11:00-14:00 / 16:30-19:30) eta igandetan (11:00-14:00). Ordutegi horretatik kanpo ere bisitatu ahal izango da erakusketa, aurrez hitzordua hartuta: [tlafragua@santxotena.eus](mailto:tlafragua@santxotena.eus) / 945396664/605717857

## Arantzazu ezagutzeko bisita gidatua: 'Historias' para conocer Arantzazu

'Ezagutu Arantzazu' ekimenaren baitan, udazken honetan bi bisita berezi antolatu dituzte Arantzazuko Santutegiak eta Arantzazuko Adiskideak elkarteak, Debagoieneko turismo informazio zentroaren laguntzarekin. Lehenengo bisita ('Historias' para conocer Arantzazu) **urriaren 19an** (11:00-12:30) izango da, Juan Ignazio Larreak gidatuta, basilikako sarreran hasita. Prezioa, 5€. Aurrez izena eman behar da: [adiskideak@arantzazu.org](mailto:adiskideak@arantzazu.org) (688 613 840).

## Chillidaren lana ezagutzeko arte lantegia 6-12 urte arteko haurrentzat

Eduardo Chillida zenaren jaiotzaren mendeurrena betetzen den honetan, Arantzazuko basilikaren ateetan egin zuen lana ezagutu, ulertu eta hark erabilitako hainbat teknika esperimentatzeko bi tailer antolatu ditu Donostiako Maushaus elkarteak, Arantzazuko Adiskideekin batera. Urriaren 20an eta 27an izango dira saioak. Izene-ematea eta informazioa: [adiskideak@arantzazu.org](mailto:adiskideak@arantzazu.org) / 688613840.

## Arregi eta Tatiegik zapatuan ariko dira Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan

Txinparta bertso eskolako Maider Arregi eta Aitor Tatiegik larunbatean (urriak 5) izango dute Gipuzkoako txapelketako final-zortzirenetako saioa, Azpeitiako Soreasu antzokian, 17:00etan. Fase honetako zazpi saioetako azkena izango da, eta final-laurdenetarako sailkatuko dira saio bakoitzeko irabazlea eta puntu gehien batzen dituzten 17 bertsolariak. Udaberrian jokatu zen sailkapen fasean maila onean aritu ziren bi oñatiarrak; Maider bere bi saioetan nagusitu zen, eta Aitorrek ere bere multzoko laugarren puntuaziorik altuena jaso zuen. Gainera, irailaren 9an jokatu zen Lizardi Saria irabaztetik dator Tatiegik

## Ondarearen Europako Jardunaldien baitan bi bisita egingo dira Oñatin

Gipuzkoako Foru Aldundiak Europar Bastasunarekin lankidetzan antolatzen dituen Ondarearen Europako Jardunaldien baitan ehundik gora ekitaldi antolatu dira datozen asteetarako Gipuzkoako 31 udalerritan, eta horietako bi Oñatin izango dira, urriaren 19an: **'Erromesaldiak: Arantzazu'** (Breviario de Arantzazu liburua oinarri hartuta), eta **'Auzolanaren fruituak Oñatin'**. Informazioa: [www.gipuzkoa.eus/oej](http://www.gipuzkoa.eus/oej)

## Yogurinha Boroba eta soinu magikoak Elkar Hezin

'Jarrai dezagun amesten' lelopean, ekitaldi berezia antolatu dute Elkar Hezi ikastetxean urriaren 25erako (16:30). Besteak beste, Yogurinha Borobaren ikuskizuna, 'Soinu magikoak' musika hastapen tailerra (0-3 urte artekoentzat) eta kultura arteko luntxa egongo dira. Familia guztiak daude gonbidatuta.



&gt;&gt; URRUSULAKO KONTUAK (XI)

# Olateko zentralaren gaiñeko lanak



Ubao aldia Aloña azpizan. ROBERTO. ALTUNA

&gt; ROBERTO ALTUNA

Haitzaren alde bateko zein besteko auzuetako makiña bat seme, hau da, urrusuldar eta araoztar asko ibilli ziran Olateko zentralian eta haren azpiegittura danak egitten; urrusuldar batzuen izenak bakarrik aittaketiarren, Barrenetxe-ko Markos Barrenaren aitta eta Errotako Bittoriano eta Sinfoso Madinabeitia aitta-semiak aittatuko dittugu. Sasue ha mentauta, kontu honeitxek kontau zittuan Sinforosok Ahotsak.eus-erako egin otsain alkarrizketan:

*“Nere mutiko denporan egingo zuan Urrusulako transformatoria. Nik zortzi bat urte-edo igual euko nitxuan, eta Ubaotik bota bihar euela. Ubaotik xaguan linea bat Olatera,*

*eta illunkaran seieta-edo, ordua ifiñitta, eta jentia ikustera fan ei zuan. Migel tabernari, Migel Igartua, ha aittajuna, semia be ni baiño zaharragua zuan, eta Gorordoko zera, argixa gorrixa etorriko zalakuan ikustera fanda egon zirala, Uri-barrittik pillia.*

Ubaotik, Ubaotik argixa etorriko zala? Bai, Ubaotik.

Baiña kablian ikusiko zala pentsaitten ebein? Kablian ikusi egingo ete zan argixori etorten, eta harek argi egingo ete eben-edo, zerbait esaten xuan harek, bai!

Ta horixe, geratuko ziran kabliari begira, ezta? Kabliari begira denporalerako, eta seieta, honezkero etorri bihar zuan, ba, etorri bihar zuan! Eta aspertu ziranian, fan ei zittuan etxera, eta etxian argixa dago!”

carpintería  
**GARIBAI**  
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com  
[www.garibai-aroztegia.com](http://www.garibai-aroztegia.com)

**Gezalaga**  
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | [gezalagamargoak@hotmail.com](mailto:gezalagamargoak@hotmail.com)



Ezkerrian, Saratxoko bokia Araotz aldetik, itxitta. Eskuman, Saratxoko ubidiaren bokia Urrusula aldetik . R. ALTUNA

**"Nere mutiko denporan, argixa Ubaotik bota bihar euela zabaldu zan. Ubaotik xaguan linea bat Olatera, eta illunkaran, seietan-edo, ordua ifnitta, eta jentia ikustera fan ei zuan, argixa gorrixa etorriko zalakuan ikustera fanda... Aspertu ziranian, fan zittuan etxera, eta etxian argixa!"**

Olatera ura zenbat lekutatik datorren preguntauta, hauxe kontau eben Sinforosok:

"Bat Aitzgain, depositotik, beste bat Saratxo. Eta Saratxoko tunelak xakok, esaten dauenez, zortzi kilometro, haitz bizixaren azpittik, eta Lafitte ei zuan ingles, e, frantses bat, injinerua, ideau ebena alde bittatik atakaittia eta..."

Zuluori? Zuluori, kobiori, uren pasuori, eta zuzen bai, baiña hau hamar zentimetro altuago.

Alde bata? Alde bata. Entzuten ei txuin deskargaak, beste zerak, entzuten dittuk, entzuten dittuk! Bai, zerbait entzuten txuat! Joño, eta ei xaguan mutil bat..., pistoletia jotzen zuan porra batekin eta albo bittara jotzen ei xuan. Konparaziño baterako, tunela igual uno veinte-edo, eta bi pistoletia, buru bat hemen eta beste bat hemen, eta harunzkotan hau eta honunzkotan hau, harunzkotan hau eta honunzkotan hau. Bederatzi erriel, dos veinticinco irabazten ei xuan harek egunian, espezialistia, artistia zalako, eta bestiak pezeta bi.

Baiña, zera, pistoletia jote hori zertarako ibilli zan? Hori tirua egitteko, tirua. Sartzen zuan. Pistoletia egitten zuan, kustiñua hola ifiñi, behetik gora antzian eta...e..

Orduan, tunelok etziran parera etorri orduan... Pare-parian, pare-parian.

Hamar zentimetro. Hamar zentimetro harunzkua bakarrik, eta, bueno, milagrua! Ta milagrua, bai, harek beste jakin ezker!"

<https://ahotsak.eus/onati/hizlariak/sinforoso-madina-beitia-onate/>

# AGENDA

## ANTZERKIA

URRIAK 26 / 19:00  
**'Orreagatik iragan hurbilera'**  
Historia Oroitz-en eskutik.  
**Santa Ana**

## BISITA GIDATUAK

URRIAK 19 / 11:00  
**'Ezagutu Arantzazu'**  
'Historias para entender Arantzazu'. Juan Ignazio Larreak gidatuta.  
**Santutegi aurrean**

URRIAK 19 / 12:00  
**'Auzolanaren fruituak Oñatin'**  
Ondarearen Europako Jardunaldien baitan.  
**Turismo bulegoan**

URRIAK 19 / 17:00  
**'Erromesaldiak: Arantzazu'**  
Ondarearen Europako Jardunaldien baitan.  
**Basilikan**

## ERAKUSKETAK

URRIAK 13 ARTE / 18:00-20:00  
**'Margolan erakusketa'**  
Aire libreko XX. lehiaketako eta margo ikastaroetako ikasleen lanak ikusgai.  
**Kultur etxean**

AZAROAK 3 ARTE  
**'Ruraltxa' argazki erakusketa**

Mendiko larreen kontserbazioarekin lotutako onura ekosistemikoak balioan jartzen dituzten argazkiak. Ostegunetik igandera (10:00-14:00).  
**Arantzazuko Parketxean**

## HITZALDIAK

URRIAK 11 / 19:00  
**'Descubriendo los secretos detrás de las imágenes médicas: una introducción a la Radiología'**  
Hizlaria: Laura Oleaga.  
**Santa Ana**

URRIAK 16 / 10:00  
**'Aita Mari itsasontzia. Elkartasunaren sinboloa Mediterraneoko ur zurrumbilotsuetan'**  
Hizlaria: Izaskun Arriaran.  
**Santa Ana**

URRIAK 16 / 19:00  
**'Lurpeko ura, babestu beharreko altxorra'**  
Hizlaria: Inma Muguerza geologoa.  
**Kultur etxean**

URRIAK 24 / 17:00  
**'Haur eta nerabeen aurkako indarkeria. LOPIVI legearen garapenerako gakoak'**  
Hizlaria: Leire Goikoetxea eta Garazi Plazaola.  
**San Juan kalen**

URRIAK 24 / 18:00  
**'Pantailen erabilera'**

URRIAK 19 / 19:00

### Olatz Salvadorren kontzertua

Olatz Salvador musikagile eta abeslari donostiarrek plazaratu berri duen bere hirugarren diskoa ('Zainak eman') aurkeztera etorriko da Oñatira. Doinu distortsionatu eta elektronikoagoetara egin omen du jauzi lan berrian. (12€, aurrez 10€). **Gaztelekuan**



Hizlaria: Miren Ros.  
Institutuko Guraso Elkarteak antolatuta, herritar guztiei irekia. **Zuazola Institutuko aretoan**

URRIAK 30 / 10:00  
**'Evolución e historia de la cartografía en Gipuzkoa. Una visión desde Debagoiena'**  
Hizlaria: Jabier Aspuru.  
**Santa Ana**

## IKUS-ENTZUNEZKOAK

URRIAK 15 / 19:00  
**'Ta argiya in zan'**  
Urumeako zentral hidroelektrikoei buruzko lan estetikoa. **Kultur etxea**

URRIAK 18 / 19:00  
**'Ja! Uraren krisia Chiapasen'**  
Lumaltik-en eskutik. Dokumentala eta solasaldia.  
**Kultur etxea**

## LITERATURA

URRIAK 15 / 18:30  
**'Tertulixan saio irekia'**  
Uxue Alberdi eta Susanna Martinen 'Surflaria' komikiaren inguruan, Igor Leturiak gidatuta.  
**Udal liburutegia**

URRIAK 24 / 18:00  
**'Ipuin kontaketa'**  
4-5 urteko haurrentzako 'Kontu-kantari' saioa





Kultur ekitaldiei buruzko informazioa  
eta sarrera salmenta  
www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan

Yolanda Arrietaren eskutik.  
**Haur liburutegia**

## MUSIKA

URRIAK 4 / 23:00  
**Esne Beltza**  
Hernaniko taldearen  
kontzertua. **Foruen plaza**

URRIAK 19 / 19:00  
**Olatz Salvador**  
Musikari donostiarrak  
plazaratu berri duen  
hirugarren diskoa  
aurkeztuko du. Aurrez 10€ /  
takilan 12€. **Gaztelekua**

URRIAK 25 / 22:00  
**Kuartz + Bloñ**  
Nafarroa Beheretik datozen  
taldeen kontzertua,  
Burrunda faktoriak  
antolatuta. Sarrera 8€  
(murriztua 3€). **Gaztetxea**

URRIAK 27 / 12:30  
**Mila Modu**  
Oñatiko pop-rock taldearen  
kontzertua. Sarrera 8€.  
**Gaztelekua**

## TAILERRAK

URRIAK 15 / 18:00  
**'0-6 urteko haurren sare  
neuronal indartzen'**  
Elkar Hezik antolatuta.  
**Behebarria gunean**

URRIAK 26 / 10:00-14:00  
**Familia Konstelazioak**  
M<sup>a</sup> Luisa de Dios García  
adituaren eskutik. Lekua

gordetzeko deitu: 628 212  
839. **Eltzia**

URRIAK 26an HASITA  
**Eneagrama Tailerra**  
Lourdes Cid eta Maite  
Anduagaren eskutik.  
Urriaren 26an hasita, guztira  
9 saio, hilean bat (9:00-  
13:00). Harremanetarako:  
658 719 086 / lourdescid1@  
hotmail.com. **Eltzia**

URRIAK 26 eta 27  
**Makrobiotika eta sasoiko  
sukaldaritza**  
Urriaren 26an (larunbata)  
hasiko da lehen taldea, eta  
urriaren 27an (igandea)  
bigarren taldea. Gainera,  
urrian zehar tailer bereziak  
egongo dira: 'The Work'  
zoriontsu izateko metodoa  
(urriak 12); 'Yin yoga eta  
eliekadura' (urriak 13); eta  
'Sasoiko sukaldaritza' (urriak  
20). Informazio gehiago eta  
erreserbak: 658 719 089

URRIAK 20 eta 27 / 10:30-  
13:30  
**Chillidaren Burdinezko  
Eguzkia**  
6 eta 12 urte arteko haurrei  
zuzendutako arte lantegia,  
bi larunbatetan. Eduardo  
Chillidak Arantzazuko  
basilikaren ateetan eginiko  
lanak aztertu eta hark  
erabilitako hainbat teknika  
esperimentatzeko aukera  
izango dute. Prezioa: 5€.  
Izena emateko: adiskideak@  
arantzazu.org / 688 613 840



### URRIAK 10 - 14

**Zine Kluba: VOLVEREIS**  
**Nagusiak: LA INFILTRADA** (Estreinaldia)  
**Haurrak: BUFFALO KIDS** (Euskaraz)



### URRIAK 17 - 21

**Zine Kluba: EL ECO**  
**Nagusiak: SOY NEVENKA**  
**Haurrak: LIZTOR KAPITAINA**



### URRIAK 24 - 27

**Zine Kluba: CASA EN LLAMAS**  
**Nagusiak: JOKER, FOLIE Á DEUX**  
**Haurrak: TRANSFORMERS ONE**



### URRIAK 31 - AZAROAK 4

**Zine Kluba: EL CIELO ROJO**  
**Nagusiak: (zehazteke)**  
**Haurrak: (zehazteke)**



**Zine-kluba:** Osteguna (19:30)  
**Nagusiak:** Ostirala (22:00), larunbata (19:30 eta 22:00),  
igandea (19:30) eta astelehena (19:30 / Ikuslearen Eguna)  
**Haurrak:** Larunbata eta Igandea (17:00)



### ANDUAGA

**San Lorentzo 3**  
**943 78 21 16**  
URRIAK 4, 14, 15, 23  
eta 24.  
AZAROAK 2 eta 3.

### IGARTUA

**Kale Zaharra 1**  
**943 78 01 22**  
URRIAK 8, 16, 17, 25,  
26 eta 27.  
AZAROAK 4 eta 5.

### GARATE

**Kale Barria 42**  
**943 78 05 58**  
URRIAK 9, 10, 18, 19, 20,  
28 eta 29.  
AZAROAK 6 eta 7.

### JULDAIN

**Kale Barria 6**  
**943 78 11 28**  
URRIAK 3, 5, 6, 7, 11, 12,  
13, 21, 22, 30 eta 31.  
AZAROAK 1.



**GARAJE ITXIA** alokairuan  
ematen da San Martinen;  
24,5m<sup>2</sup>-ko garajea da.  
Deitu: 666 391 867.

**GARAJE BAT** alokairuan  
hartu nahiko nuke Oñatin.  
Deitu: 615 741 787.

**HEZKUNTZAN**  
esperientziadun neska  
haurrak zaintzeko edo/eta  
klase partikularrak  
emateko prest. Goizez  
lehen orduak libre eta  
arratsalde guztiak. Deitu:  
664 357 505.



**URRIAK 18**  
16:30-20:30, MU-ko  
Enpresagintza fakult.  
**Hitzordua hartzeko:**  
943 00 78 84.



M<sup>a</sup> del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea  
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

# ULMA eta ALOÑA MENDI elkarrekin bidea eginez

**ZORIONAK  
75 URTEKO  
IBILBIDEAGATIK, ETA  
ETORRIKO DIREN  
URTEETAN BIDEA  
ELKARREKIN EGITEN  
JARRAI DEZAGUN!**



 **ULMA**